

Kirola

Iñaki Iza pilotari elegantearen agurra, mina gaintitu eta bizimodu normala egin ahal izateko esperantzan > 15

“Jose Antonio Retolazak euskararekiko zuen zaletasuna geure egin genuen” > 12



Agustin Leturiaga | Omenaldia Atxondon

Xabier Amurizaren inguruan elkartuko dira haren lagun eta kideak asteburuan

Durangaldeko Bertso Eskolak eta Plateruenak antolatuta, ‘Emaidazue freskura’ ikuskizuna egongo da, gaur, Plateruenean ikusgai. Duela hainbat aste agortu ziren Amurizak idatzitako kantak oinarri izango dituen emanaldi horretarako sarrerak. Domekan, Zornotzan hasi eta Berrizen amaituko den ‘erromesaldi artistikoa’ egingo dute, asteburua borobiltzeko. > 12



Arrazolatarrak eta uribelarreatarrak sorlekura bueltan

Abizen biek Arrazolan dute sorburua, eta ehunka urtean munduan zehar hedatu dira. Orain, abizen bien gaineko topaketak antolatu dituzte; arrazolatarrak asteburu honetan, eta uribelarreatarrak abuztuan. > 2-3



Aste bitarteko menua, asteburuko menua, menu berezia eta karta

kanbio
J A T E T X E A

San Migel Dudea auzoa | AMOREBIETA-ETXANO | Tel.: 946 730 033

Durango > 4

Etxebakoan pentsioa zabaldu gura du Etxepelek

Durangaldea > 5

Erkidegoko autobideetarako tarifa finkoa eskatu dute

Zornotza > 6

Martzel Do Nascimento irabazi du jaien kartel lehiaketa

Abadiño > 8

Domekan errepetizio eguna ospatuko dute Urkiolan

“Sustraiak ezagutzeagaz jendea harro sentitzen da; gustura hartzen duten informazioa da”



Oñatin eta bertako Olabarrieta auzoan hainbat arrazolatar daude. Jose Mari Arrazolak (Donostia, 1948) horiek eta mundu zabalekoak batu gura ditu Oñatin asteburuan izango den topaketan. Domekan abizenaren sorterrria bisitatuko dute. Arrazola ezagutu eta Axpen bazkalduko dute.

Domeka eguerdia eta arratsaldea Atxondon emango dituzue.

Guztira, 220 bat arrazolatar batuko gara bertan. Lehenengo, herrian osteratxo bat egingo dugu, herria ezagutzeko. Alkateak Axpeko frontoia eskaini digu, bertan balkaltzeko. Bazkalostean musika, dantzak eta zozketak izango dira. Ilusioz joango gara, eta ea dena ondo irteten den.

Aurreko egun bietan Oñatin eta bere inguruetan ibiliko zarete. Zer prestatu duzue?

Zapatu goizean abizenari buruzko hitzaldiak eta abar antolatuko ditugu (www.arrazola.org webgunean aurkitu daiteke egitaraua) unibertsitatean. Arrazola abizenari buruz urteetan zehar batu dugun informazioa jasotzeko aukera egongo da: Nondik datorren, arrazolatar batzuen historia... Ondoren, arratsaldean Oñati herria bisitatzeko asmoa dugu, eta domeka goizean, Arrazolara bazkaltzera joan aurretik, Olabarrieta auzotik zehar ibiliko gara arrazolatar asko daudelako inguru hartan.

220 lagun batuko direla diozu. Jatorri askotakoak?

Bai, bai. Azken batean, arrazolatar gutxien Euskal Herrian bertan dago. Arrazolatarren %5 baino ez da bizi Euskal Herrian, gutxi gorabehera. Arrazolan bertan ez dut uste abizen horretako asko bizi direnik. Mexikon, esaterako, 5.000 bat lagunek dute abizen hori. Guadalajarako Checa herrian, berriz, %35ek du abizen hori. Abizenik ohikoena da.

Eta munduko arrazolatarrekin hartuemanetan jartzen zaretenean, zer harrera jasotzen duzue?

Oro har, hemengoak zein atzerrikoak, denak oso harro sentitzen dira beren sustraiak ezagututa. Gustura hartzen duten informazioa da, eta esker oneko agertzen dira.



Juan Carlos Arrazola
Elorrio

Orain urte bi Checa herrian egindako lehenengo topaketara ezin izan zen joan, baina aurtengoan ez du hutsik egingo.

Aurrekoan ezin izan zinen arrazolatarren topaketara joan arrazolatarren bazkari bategatik.

Bai, Guadalajarako Checa herriko Abelino Arrazola gugaz hartuemanetan jarri zen gonbidapena egiteko. Baina egun horretan ezin izan ginen joan familiako arrazolatarren bazkaria geneukalako Astein. Gure aitona handik ingurutik datoz, Ibarruritik.

Oraingoan joango zara.

Bai, joango naiz. Bertan da, eta gainera, gure arrazolatarren bazkaria ekainetik urrira aldatu genuen iaz. Horrela, ba, aurtentzen ez dut beste konpromisorik, eta joan naiteke. Badut kuriositate. Esaterako, Abelino ezagutu gura dut, eta batzen diren beste arrazolatarrek ere bai.



Belen Arrazola
Durango

Arrazolatarren genealogia beti interesatu izan zaio eta, besteak beste, horri buruz gehiago jakiteko baliatuko du topaketa.

Zure lehen topaketa da?

Bai. Orain urte bi jakin nuen Checan batuko zirena, baina urrun samar dagoenez ez ginen joan. Baina hurrengo Oñatin egingo zutela aurreratu zuten orduan. Oraintsu ekimeneko antolatzaileetako bat entzun nuen irratian, eta izena ematea erabaki nuen.

Zer espero duzu topeketatik?

Arrazola abizenaren ikerketa genealogikoaren azalpenak entzun gura ditut. Abizenaren ibilbidea eta zelan zabaldu den hainbeste. Gure abizenaren genealogia beti interesatu izan zait, eta nirearen lau-bost belaunaldi ezagutzen ditut. Arrazolako bazkarian ere parte hartuko dut, eta toki askotako arrazolatarrek ezagutzeko aukera ere polita iruditzen zait.

“Topaketak egitea eskertzen didatenean, ahalegin denak balio izan duela sentitzen dut”



Aniceto Uribelearra (Saint Benoit de Carmaux, Frantzia, 1931) 25 urte daramatza bere abizenaren jatorria arakatzeko. Uribelearraren topaketak ere antolatzen ditu. Lehenengo arrazolan egin zuten, orain 20 urte. Ondorengoak Parisen, Argentinan... izan dira. Abuztuaren 13an berriro abizenaren sorterrira itzuliko dira, eta Makatzetan (Arrazola) bazkalduko dute.

Noiz eta zergatik erabaki zenuen Uribelearra abizenaren jatorria ikertzea?

1991n, orain 25 urte. Aita asturiarra izanda, abizen euskaldun hori nondik zetorkion galdetu nion. Bere aitona, nire birraitona, Euskal Herriatik Asturiasera etorri zela zekien, baina asko gehiagorik ez, eta kuriositatea sartu zitzaidan.

Zelan gogoratzen duzu orain 20 urte Arrazolan egindako lehenengo topaketa?

Oso gomuta onak ditut. 246 uribelarreatar batu ginen, eta Makatzeta jatetxean bazkaldu genuen. Asturiarrak, euskaldunak, frantziarrak, argentinarrik... batu ginen.

Uribelearrarekin hartuemanetan jarri eta gonbidapena egiten diezunean, zelan erreakzionatzen dute?

Oso pozik hartzen naute. Topaketak egitea eskertzen didatenean, ahalegin denak balio izan duela sentitzen dut. Horrek asebeteko egiten nau.

Elorrio Hotelean egun bi eman dituzu abuztuak prestatzen. Zelan joan da?

Oso ondo. Abuztuaren 12a Elorrioko hotel horretan emango dugu. Uribelearrak heldu ahala, elkar ezagutzeko eguna izango da. Bakoitzari bere izen-abizenak eta herrialdea jasotzen dituen txarteltxoak banatuko diogu. Paparrean itsatsita eramateko txartel pertsonalizatuak izango dira. Horrela, lehen begiratuan badakizu uribelarreatar hori nondik datorren. Elkar ezagutzeko uea erraztu egiten dute txartelok. Abuztuaren 13an Makatzeta jatetxean bazkalduko dugu. Nire asmoa topaketa denetako argazkien koadroak han jartzea da. Non eta zelan jarri begira ibili naiz jatetxean, bertako jabeekin. Batzen direnei oroigarri bana ere banatuko diegu. 100 bat lagun batuko gara.



Angel Uribelearra
Durango

Uribelearrarekin Arrazolako Makatzeta jatetxean egindako azken bazkariko gomuta onak ditu Angelek, eta aurtentzen ere gustatuko litzaike joatea.

Zelan gogoratzen duzu Arrazolako topaketa?

Oso gomuta onak ditut. Politza izan zen. Nire bigarren abizena Uriarte da, eta badakit abizen horretako jende asko dagoena. Aldiz, uste nuen Uribelearra ez zegoela oso zabalduta. Eta sorpresa handia hartu nuen abizen bereko hainbeste lagun batu ginen. Gainera, mundu osoan zabaldutako abizena dela jakin nuen, Argentinan esaterako, eta hori ere deigarria egin zitzaidan.

Aurtentzen ere joango zara?

Gustatuko litzaidake. Abuztua da eta kanpoan egongo naiz, Laredon. 82 urte ditut eta ez dakit posible izango dudana. Baina ahal baldin badut, politza litzateke.



Miren Uribelearra
Durango

Orain 20 urte Arrazolan egindako uribelarreatarren lehenengo topaketan parte hartu zuten, eta gertuko abizenki-deak ezagutu zituen.

Zelan gogoratzen duzu lehen aldi hura?

Jende asko batu ginen. Ez nuen espero. Durangoko ezagun askok Uribelearra abizena dutela deskubritu nuen. Hainbat sorpresa eraman nuen: “Zu Uribelearra zara? Eta zu ere bai?”. Askorik urteetan ezagutzen nuen jendea zen, eta ez nekien uribelarreatarrek zirela.

Munduko hainbat txokotako uribelarreatarrek ere batu ziren.

Bai, eta hori ere ez nuen espero. Banekien Argentinan Uribelearra izeneko herri bat zegoena, baina ez nekien abizena hain zabalduta zegoenik. Gogoan dut Argentinatik orduan 90 urte zituen emakume bat etorri zena. Egia esanda, egun politza igaro genuen.

Iñaki Uriberen katerin berezia: despedida Yosemiteko raftingean

Saltsaneko sukaldaria Kalifornian egon da, despedida baterako lan egiten

DURANGO Markel Onaindia Saltsan katerineko Iñaki Uribe San Francisccon (Kalifornia, AEB) egon zen 1991n, lanean eta ingelesa ikasten, eta orain, 25

urte geroago, hara bueltatzeko aukera etorri zaio. Ez edozelako planean, gainera: ezkongaien despedida bateko katerina antolatu du, Yosemiteko parke

nazionalako paraje ederretan. Haraino eraman ditu euskal sukaldaritzaren gatza eta piperra.

Lagun baten bidez jo zuten berarengana despedidakoek.



Uribe Yosemite, 21 lagunentzat jatekoa prestatzen.



Hara joan eta sorpresa berri bat hartu zuen. Izan ere, katerina rafting esperientzia baten erdian landu behar zuen. Azkenean, hala ere, asteburu osoan zehar gozatu zuten 21 estatu-batuarek Uriberen sukaldaritzaz; barbakoa, gosaria, afaria... Jateko guztia han topatu zuen, kalitatezkoa: "San Francisco inguruan jatekoari garrantzia ematen diote, kilometro 0 edo *slow food* ildoei jarraituta".

Egun garrantzitsuan, zapatuan, raftinga egin zuten Yosemite. Gero, erreka bazterrean prestatu zuten jatekoa. Hogeitabat plater eskaini zizkien Uribe: txangurrua, kroketak, pikillo piper beteak, txipiroiak, bakailoa... Edateko, txakolina, sagardoa, ardoa... "Kalimotxo fresko-fresko bat ere egin nuen porroian, eta arrakasta itzela eduki zuen". Menu guztiak egiteak lan handia eman zion sukaldariari, baina jendeagaz eta inguruneagaz disfrutatu zuela esan du. "Kalean egin genuen lo, zakueta, mila izarreko hotelean".

San Juan jaiak ospatuko dituzte Goita auzoan

MALLABIA J. Guenetxea Ekainaren 23an emango diete hasiera Goita auzoko San Juan jaiak, Donien Atxa altxatuta eta sua piztuta. Ekainaren 24rako, berriz, meza, briska txapelketa eta txokolatada antolatuko dituzte. Ekainaren 25ean, ume eta nagusientzako jolasak, tortilla txapelketa, probak eta txapel jaurtiketa aurreikusi dituzte.

Ekainaren 26rako, egun osoko egitaraua prestatu dute. Goizean, meza eta dantzarien ekitaldia, lehenengo. Gero, motozerra erakustaldia eskainiko dute Boliñak eta Asier Etxaburuk. Trontzan ere arituko dira. Eguerdian, berriz, paella txapelketa izango da. Arratsaldean, aldiz, umeen jolasak, tute txapelketa eta bola sariak. Txokolatadagaz eta errifan zozketagaz amaituko dute egitaraua.

Herritarren iritzia batzen Berdintasun Plan berrirako

DURANGO J.D. Durangoko Udalak Bigarren Berdintasun Plana indarrean jarri gura du 2017an, eta hiru urteko epealdia izango luke. Plan berria diseinatu aurretik, diagnostiko fasean daude, Pilar Ríos alkateordearen esanetan.

Ekainaren 21ean, 19:00etatik 21:00etara, herriko elkarte feministekin batuko dira *Work Café* formatuko batzarrean. Ekainaren 25eko deialdia herritar denei zuzenduta dago: 12:00etatik 14:00etara, gura duten herritar denek euren ikuspegia emateko aukera edukiko dute Andra Mariko elizpean.

17.700 euroko aurrekontua dauka prozesuak, eta Emakunde %75egaz lagunduko du.

Etxebakoien pentsioa zabaltzeko esperantzaz

Etxepel zentroan pentsiorako finantziarioa lortzeko berbetan dabilta, eta laster zabaltzea espero dute

DURANGO M.O. Caritasek gestionatzen duen etxebakoentzako Etxepel zentroan gaueko pentsioa zabaltzea gura dute. Alberto Estefaniak azaldu du Aldundiagaz eta Amankomunazgoagaz berbetan dabilzala, eta finantziarioa lortzen badute, laster zabaltzea espero dutela.

Izan ere, "laguntza publikorik barik ezinezkoa izango da gaueko zerbitzua martxan ipintzea", Etxepelekoek diote. Uneotan, eguneko zentroa kudeatzeko 150.000 euro erabiltzen dituzte urtean, eta gaueko zabaltzeko gero, gastua 400.000 eurora igoko litzatekeela azaldu du Estefaniak.

Baqueren laguntza Informazio hori, Cafés Baqueren ekarpena aurkezteko prentsaurrekoan eman dute. 50 kilo kafe eman dizkio enpresak Etxepeli, etxebakoek 2016an zehar zentroan kontsumitzeko. "Kafea, etxeko beroa, familian zaudela gogorarazten dizuna" dela esan du Baquéko Akier Legarretak.

"Laguntza publikorik barik ezinezkoa izango da gaueko zerbitzua martxan ipintzea"

Fraileri etxera gerturatzea ukatu diote

DURANGO M.O. Gorka Fraile preso gaixoari etxera gerturatzea ukatu dio Auzitegi Nazionalak. Iaz Kartzela Erakundeek ukatu eta gero, errekurtsua ipini zuten

Iaz Kartzela Erakundeek gerturatzea ukatu eta gero, errekurtsua ipini zuten bere abokatuek

bere abokatuek, baina epaitegi horretan ere iritzi bera dute. Epaila eta agintarien jarrera salatu du Etxeratak. Fraile ondo dagoela ondorioztatu dute azken emaitzek, baina guztiz sendatuta egotea ezin dela aurreikusi azaldu dute senideek.

Abadiñoako Udalari eskaria Muruetako egitasmoaz

ZALDIBAR I.E. Abadiñoako Udalak Murueta auzoko lursail bat birkalifikatu eta saltoki handi biri lizentzia emateko asmoari buruzko bost eskari biltzen dituen mozioa onartu zuen EH Bilduk ekainaren 9ko udalbatzarrean. EAJ eta PSE abstenitu egin ziren. Abadiñoako Udalaren asmoak Durangalde osoari eragiten diola azpimarratzen du mozio horrek. Muruetako bi saltoki handi horien balizko irekierak Zaldibarko komertzio txikiari eragingo dizkion kalteak kontuan hartuta, Zaldibarko Udalak Abadiñoakoari eskatu dio "bertan behera utz dezala lursailaren izendapenaren aldatetarako tramitazioa".

EKAINEKO SARIAK

Anbotoren lagunak

www.anboto.org
lagunak@anboto.org
Tel.: 946 816 558

HITZ LIBURU-DENDA.
LIBURUA ETA CDa
Patrick Modianoren "Villa Triste" liburua eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen "Amalur" CDa.

hitz

AKEBASO.
MENUA
Bi lagunendako aste bitarteko menu exekutiboa.

akebaso

BAGOAZ BIDAIAK.
NEKAZAL ETXEA-SPA
Durangaldetik ordu eta erdira dagoen nekazal etxe batean egonaldia. Zapatutik domekara. Gosaria eta spa saio bat barne.

BAGOAZ BIDAIAK

UNAMUNZAGA HORTZ-KLINIKA.
ESKUILA ELEKTRIKOIA
Hortzetako eskuila elektrikoa PC800 sensitive ORAL-B.

UNAMUNZAGA HORTZ-KLINIKA

SALTSAN KATERIN.
MENUA
Bi lagunendako aste bitarteko menua.

saltsan

ABANTAILAK

- Deskontuak Durangaldeko zein eskualdez kanpoko hainbat saltokitan.
- Deskontuak Anboton argitaratzen diren iragarki labor ordainduetan eta eskeletan.
- Hilero egingo diren zozketetan parte hartzea.
- Durangaldeko egutegia eta turismo-gida opari.

Erkidegoko autobideetarako tarifa finko bakarra eskatu dute

A-8 autobideko Durangaldeko erabiltzaileek 30 euroko muga edukiko dute

DURANGALDEA J.D./M.O. Bizkaiko ordainpeko errepideak erabiltzeagatik, hilean, gehienez, 30 euro ordainduko dute bizkaitarrek 2017tik aurrera, Unai Rementeria Ahaldu Nagusiak joan zen astean iragarri zuen lez. Ondorioz, horixe izango da A-8ko Durangaldeko erabiltzaileek hemengo bidesariengatik edukiko duten muga.

Horren aurrean, A-8ko bidesariaren aurkako plataformak balarazioa egin du: "Pozik gaude Aldundiak herritarren aldetik egindako presioei erantzun dielako". Baina, tarifa finko bakarra eskatu dute erkidegoko autobideetarako.

Alderdiei, elkarlana
Beraz, pauso bat aurrerago

joan gura dute plataformakoek. Gipuzkoan antzerako sistema ezarrita dagoenez duela lau bat urtetik, elkarlana eskatu diete erakundeei. "Alderdi politikoei elkarlana eskatzen diegu erakunde publikoetan, udaletan zein hiru batzar orokorretan, Euskadin bidesaria duten errepide denetan tarifa bakarra ezartzeko".



A-8 autobideko bidesariaren aurka sinadura bilketak eta protestak egin dituzte.

LABek klausula sozialak eskatu ditu mozioekin

DURANGALDEA M.O.

LAB sindikatuak mozioak sartu ditu Durangaldeko udaletan eta Amankomunazgoan, azpikontratazioetan klausula sozialak bete daitezela eskatzeko. Prentsa ohar bidez adierazi duenez, sindikatuak uste du zerbitzu publikoak langile publikoek bete behar dituztela, baina azpikontratazioen inguruko "egoera ikusita, premiazko neurriak" hartu behar direla uste du. "Azpikontratazio hauetan ematen den prekaritatea amaitu behar da".

LABek azaldu du herrialdekako lan hitzarmena ezarri behar dela agertzen dela klausula sozialetan, eta genero berdintasuna eta euskararen erabileraren bermea ere jasotzen direla. Politikariei zuzendu zaie sindikatua: "Beste alde batera begiratzen bada, erabaki politikoa izango da". Hain zuzen ere, orain arte zerbitzu publikoak azpikontratatzea EAJ, UPN eta PSE-EEren erabaki politikoa izan dela salatu du LABek.

Bilbo itsasontsiz ezagutzeko aukera uztailean

MAÑARIA M.O.

Mañariko Udalak eta Ursula Donea nagusien elkarteak antolatuta, Bilbora irteera egingo dute uztailearen 2an. Horrela, taldean egunpasa ederra egiteko aukera edukiko dute mañariarrek.

Goizean, Bilbora sartu aurretik, Plentzia eta Gorliz ere bisitatuko dituzte

Ekitaldi ugari aurreikusi dituzte egun horretarako. Besteak beste, Bilbo itsasontzitik ezagutzeko aukera emango dute. Arratsaldean egingo dute ibaitik zeharreko txango hori. Goizean, Bilbora sartu aurretik, Plentzia eta Gorliz herriak ere bisitatuko dituzte. Eguerdian, Artxandan bazkalduko dute.

10:00etan joango dira Bilborantz, eta 19:30 inguruan bueltatuko dira herrira.



Clase A Berria, 220€/hilean*. Bat egin belaunaldi berriarekin.

Belaunaldi berriaren bizimodura bikain moldatzen den autoa duzu. Mercedes-Benz-en Clase A Berria, DYNAMIC SELECT gidatze-sistema, COLLISION PREVENTION ASSIST PLUS eta LED High Performance argiak dituena. Zuretzat da, hilean 220€* -ren truke, 48 kuotatan (sarrerara 4.575,80€, azken kuota 14.654,93€**, ITN %7,95, UTB %9,32).

Batez besteko kontsumoa 3,7-3,9 l/100km eta CO₂-a isurtzea 98-104g/km.

*Finantzaketa-edibidea: Clase A 180d, J.P. 24.200€ (zerbak, PIVE 8 plana eta garraioa barne. Aurre-entregatze gastuak kanpo), Mercedes-Benz Financial Services España, E.F.C., S.A.-ren Alternative programari esker. Bruselas Etorbidea 30-28 108 Madril. Baliozkoak: 2016/06/30era arte onartutako eskariak, kontratua indarrean eta 2016/08/31ra arte matrikulatutako ibilgailuak edo PIVE 8 plana amaitu arte. Finantziatu beharreko zenbatekoa 19.624,20€. Hilean 220€, 48 kuotatan, azken kuota 14.654,93€, sarrerara 4.575,80€, ITN %7,95, zabalitze-komisioa 586,76€ (%2,99), UTB %9,32. Guztira ordaindu beharreko zenbatekoa 25.801,70€. Guztira epeakoa zenbatekoa 30377,50€. Baliozko eskaintza 20.000km/urtean.

** Azken kuotarako 3 aukera: ibilgailua aldatu, itzuli (kontratuaren baldintzak betez gero) edo ibilgailua eskuratu, azken kuota ordaindu ondoren... Argazkiko modelo ez dagokio eskaintzari. Informazio gehiago www.mercedes-benz.es-en.

Mercedes-Benz
The best or nothing.



AGUINAGA

Bizkaiko Mercedes-Benz kontzesionario ofizial bakarra
info@aguinaga.es | www.aguinaga.es

Boroa Industrialdea, 2. Nabea 3
48340 ZORNOTZA
Tel.: 94 630 17 47

18 urteko zornotzar gaztearen kartelak iragarriko ditu karmenak

Martzel Do Nascimento espainiar eta oleoz egindako lanak irabazi du lehiaketa



Martzel Do Nascimento Goiria zornotzar gaztea kartel irabazleagaz.

ZORNOTZA J.Derteano Martzel Do Nascimento Goiria 18 urteko zornotzarraren kartelak iragarriko ditu aurten Karmen Jaiak. Osorik eskuz egindako lana da. Graffiti mundua ondo ezagutzen du, baina "gauza berriak" probatzen ari da. Horrela, espainiar gainera, olio-pintura ere erabili

du irudia osatzeko. Bere arreba lanarak egin dizkio testua eta argiztapena. Horixe da irudiak duen osagai digital bakarra.

Irudian hainbat esku zerurantz jasota ageri dira. Horietako batek globo gorri bati eusten dio, eta globoaren barruan Andres Nagelen eskultura ageri da. Arrautza prijitu bat ere agertzen

da irudian: "Arrautzak berez ez du zentzurik irudian, baina jaietan zentzu askorik ez duten gauzak gertatzen dira, eta hori islatzeko sinbolismoa da", dio Ingurumen ingeniariak.

Kartela herritarren bozketa bidez aukeratu dute. 781 bototik 201 jaso ditu guztira. 1.000 euroko saria irabazi du.

Plaza ondoko eraikinaren teilatua konpondu dute

Udalak 35.000 euro erabili ditu lan horretarako



Asteon amaitu dituzte teilatuko lanak.

IZURTZA J.Derteano Plaza ondoan osasun zentroa, Argintxu elkarte, jubilatuen egoitza eta gazteleku hartzen dituen eraikineko teilatua konpontzen ibili dira 15 egunean, eta dagoeneko amaitu dituzte lanak. Aurrekontuetan jasota zegoen inbertsioa zen, eta udalak 35.000 euroko diru atala erabili du lanak gauzatzeko.

Urteetan konponketa txikiak egiten ibili dira, baina azken euriteetako ur filtrazioen ostean, teilatua osorik eraberritzea erabaki dute. Pitzatuta zegoen hormigoaren gainetik tela asfaltikoa jarri dute filtrazioak ekiditeko. Teilak ere aldatu dituzte, lehen zeudenak zahartuta zeudelako eta ura ez zutelako ondo bideratzen hoditeriara.

Gidabaimena euskaraz aterata, diru-laguntza dago

17 eta 25 urte artekoek jaso ahalko dute laguntza

ELORRIO Markel Onandia "Euskararen erabilera orain arte hedatu ez den hainbat eremutara" zabaltzeko asmoz, ekimen berria ipini du martxan Elorrioko Udalak: gidabaimena euskaraz ateratzeko diru-laguntzak eskainiko ditu.

Azterketa teorikoa euskaraz gauditu dutenek lehen lau klase praktikoak doan edukiko dituzte. 17 eta 25 urte arteko gazte elorriarrek jaso ahalko dute laguntza, eta, gehienez, 220 eurokoa izango da. Azaroaren 24ra bitartean eskatu ahalko dute, udaletxean bertan.

Idoia Buruaga alkateak azaldu du gazte gehienek euskara hutsean ikasten dutela ikastetxeetan, baina gero, gi-

dabaimena ateratzeko klaseak gaztelaniaz hartzen dituztela. "Kontraesan hori leundu gura genuke", esan du Buruagak.

Igerilekua, zabalik

Bestalde, gaur zabaldu dituzte Elizaldeko kanpoko igerilekuak. Herritarren ekarpenak kontuan hartuta, 36.000 euroko inbertsioa egin dute konponketarako. Aurten ere proposamenak jasotzeko bidea eskainiko dutela azaldu du Dani Palacios zinegotziak. Bestalde, futbol zelaiko obregatik, autoz ez joatea aholkatu dute.

Iaz 29.300 sartu-irten egin zituzten erabiltzaileek. 1.833 abonatu egon ziren, eta 12.900 sarrera saldu zituzten.

Uztailean hasiko ditu eskolako lanak Artzamendi enpresak

OTXANDIO J.D.

Efizientzia energetikoa hobetzeko helburuz, hainbat lan burutuko dituzte Otxandioko eskolan. Lan horiek Bergarako Artzamendi enpresari esleitu dizkio Otxandioko Udalak, aurkeztutako proposamenetik merkeena izan delako. Lanak uztailean hasiko dituzte, eta irailean kurtso berria hasi orduko amaituta egon beharko dute.

Lanen barruan, Mainondon dagoen eskolari estalki berezi bat jarriko diote energetikoki eraginkorragoa izan dadin, eta leihoak ere aldatuko dituzte. Ondoren, eskolak berak aukeratutako diseinuagaz apaingotako dute fatxadako kanpoalde berria.

Enpresa proiektuen VII. lehiaketa zabalik

IURRETA A.B.

Enpresa Proiektuen VII. Lehiaketa argitaratu du Iurretako Udalak. Herrigunean enpresa berriak sortzea sustatu gura du lehiaketak, produktu, prozesu eta zerbitzuen arloetan ideia berriak ekarriko dituztenak, aberastasuna eta enplegua sortzen lagunduko dutenak edota herriko merkataritza birgaituko dutenak. Bidea erraztu gura die baita norberaren enpresa edo denda sortuz lanean hastea erabaki dutenei ere.

Irabazten duenak 6.000 euroko saria lortuko du, inbertsio-proiektua egiteko eta ekonomia-jarduera hasteko laguntza izango dena. Eskariak egiteko epea zabalik dago, urriaren 31ra bitartean. Erregistro orokorrean daude eskabideak.

katerin ardoak
iñaki uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

Arrike
Liburudenda

Kalebarrila z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

Eraikuntzarako materiala

MACOBER

Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

OSASUN GIDA

FISIOTERAPIA

PEDAGOGIA

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea,
behea eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

Tel.: 944 657 132 - 686 906 374

RPS: 119/13



PABLO ZUBIZARRETA
FISIOTERAPIA ETA OSTEOPATIA

Muruetatorre, 2D - 48200 DURANGO
pzubizarreta@gmail.com

Tel.: 946 550 049
Mug.: 695 784 963

RPS: 57/16

UGATZ

**UMEAREN
GARAPENERAKO
ZENTROA**

Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea,
fisioterapia, logopedia

Juan Olazarán, 1 behea
48200 DURANGO

ugatz@hotmail.es

Tel.: 944 668 370 - 615 782 090

RPS: 63/63

PODOLOGIA

ESTETIKA

OPTIKA

**PODOLOGIA
KLINIKA**

**GOIATZ MURUA
PODOLOGOA**

**AINHOA ELORZA
PODOLOGOA**

Kiropodia, onikopatia, alterazio
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 - behea
48200 DURANGO

Tel.: 946 203 630

RPS: 148/13

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticadurango.com

Laser berria:

Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa,
Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 DURANGO

Tel.: 946 810 387

RPS: 16/09

keinu optometria zentroa

Nala Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Optometriaren teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia
- SENA estimulazio neuroauditiboa.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099

www.keinuoptometrizentroa.com

RPS: 162/13

ODONTOLOGIA

PSIKOLOGIA

clinicadental hortzklínika

**B. UNAMUNZAGA
E. ETXEBARRIA**

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALIZATUA

Muruetatorre, 2C - behea
48200 DURANGO

uecdental@gmail.com

Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454

RPS: 145/13

J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO

Tel.: 946 812 200

RPS: 112/13

JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psicologo.biz

Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

RPS: 62/11

Bisitari ugari Urkiolan San Antonio egunez

Ospakizun eguna izan zen astelehena Urkiolan



20 erakusmahai ipini zituzten nekazaritza azokan. Jose Antonio Salterain.

ABADIÑO Itsaso Esteban Eguraldia lagun, giro aparta izan zen asteleheneko San Antonio egunean Urkiolan. Bisitari ugari joan zen nekazaritza eta abeltzaintza azokan erosketak egitera, mezataria, edota Angel Mari Peñagarikano eta Aitor Mendiluze bertsolariak entzutera. Hogei saltoki atondu eta 124 abelburu erakusketan ipini zituzten San Antonio eguneko azokan. Arratsaldean, bestalde, Electromotores txarangak kalejira egin zuen Santutegi inguruan.

Urteroko ohiturari jarraituz, jende asko ibili zen asteleheneko Urkiolan, Santutegi aurreko harriaren inguruan bueltak emanez San Antonio eguneko errituala burutzen.

Ekainaren 19an, domekan, Errepetizio eguna ospatuko dute Urkiolan. Mezak, herri kirolen erakustaldiak, soka-dantza saioak, bazkaria, Aiko taldearen erromeria eta Bizkaiko gaiteroen emanaldia izango dira, besteak beste.

Domekan, Errepetizio Eguna ospatuko dute Urkiolan: mezak, herri kirolak, dantza saioak...

Ekaineko asteburu guztietan, gainera, Durangaldeko Artista Elkarteak kideen lanak egongo dira Urkiolako erakusketaretoan ikusgai.

Bigarren eskuko azoka solidarioa antolatu du Gorabidek

ABADIÑO I.E.

Adimen ezintasuna duten pertsonen aldeko Gorabide elkarteak Atxarten daukan zentroko kideek antolaturik, bigarren eskuko azoka egingo dute, ekainaren 19an, Abadiñon. 10:00etatik 14:00etara, Ferialekuan egongo dira azokako erakusmahaiak.

Adimen urritasuna dutenen alde AMPROS elkarteak Saharan egiten duen lana bultzatzeko

Bigarren eskuko arropa eta askotariko objektu eta tresnak salduko dituzte azokan. Erakusmahai ipintzeko, bost euro ordaindu beharko du partaide bakoitzak, eta izen-emateak lortutako dirua Saharako errefuxiatuen kanpamentuetan lanean diharduen Kantabriako AMPROS elkarteari emango diote. Adimen urritasuna duten pertsonen laguntza die elkarte horrek Saharako kanpamentuetan.

Aurreko urteetan ere parte hartu izan dute Atxarte egotezako kideek Abadiñoko bigarren eskuko azokan. Aurten, baina, beraien esku egon da azokaren antolakuntza.

Eskolako irisgarritasuna hobetuko dute udan zehar

Ekain bukaeran hasiko dituzte eskolako obrak

BERRIZ M.Zuazubiskar

Learreta-Markina eskola publikoko irisgarritasuna hobetzeko asmoz, Berrizko Udalak lanen bigarren fasea martxan jarri du.

Ekain amaieran hasiko diren lan hauetan hainbat gauza egin gura dituzte. Esaterako, aldapa berri bat jarriko dute, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehen solairuak Haurreskola eta Kiroldegiko sarbidearekin lotzeko. Gainera, gune horretan dauden eskaile-

rak berriztatuko dituzte, erabiltzaileei erosotasun handiagoa emateko asmoz.

Bestalde, kiroldegiaren sarbidea hobetuko dute, bertan bizikletak aparkatzeko gune bat jarri.

Horrez gain, eguraldi txarra egiten duenean, gurasoak egoteko gune estali bat ere sortuko dute.

Ekain amaieran hasiko dituzte lan hauek, eta irailerako amaituko dituzte, ikasturte berria hasten denerako.

Momoioko jaiak ospatuko dituzte hurrengo asteburuan

GARAI Markel Onaindia

Momoioko San Joan jaiak ospatuko dituzte hurrengo asteburuan, ekainaren 23tik 26ra, hain zuzen ere. 23an, 20:30ean txopoa ipinita hasiko dituzte jaiak. Euskal Herriko leku askotan lez, sua isiotuko dute gau horretan.

Hilaren 24an meza egongo da, 12:00etan, eta 25ean etorriko da jai girorik handienetakoa.

Izan ere, 21:00etan afaltzeko elkartuko dira, eta, ostean, Itzerdi taldearen erromeriagaz dantzatuko dira, jai giroagaz jarraitzeko. Afarira joan gura dutenek udaletxean eman behar dute izena, hilaren 21a baino lehen.

Domekan amaituko dituzte jaiak, 11:30eko meza eta ondorengo dantza saioagaz.

Afaltzeko elkartuko dira, eta, ostean, Itzerdi taldearen erromeriagaz dantzatuko dira

DURANGALDEA ASTEON

Alde Zaharreko lurra "labainkorra" dela dio DAZek

DURANGO > Auzotarren iritzia kontuan hartuta, Alde Zaharreko lurra "labainkorra eta arriskutsua" dela esan du DAZek, eta horren erruz, jende ugari labanduta jausi egiten dela. "Segurtasun falta hori etengabeko mehatxua da herritarrentzat".

Egoera horren aurrean, udalari azterketa tekniko bat egitea eskatu dio, eta arazoari "soluzio osoa" ematea.

Orlandoko eraso homofoboa salatu dute isilune batez

DURANGO > Udalak eta EHGAM elkarteak deituta bost minutuko isilunea egin zuten martitzen eguerdian, udaletxe aurrean, Orlandoko (AEB) biktimak gogoan. Kontzentrazioan udaleko hainbat ordezkari politikok parte hartu zuten, zenbait herritarrez gainera. Homosexualak batu ohi diren taberna batean egin zuen eraso gazte batek zapatu gaez, eta 50 lagun inguru hil zituen.

Herri bideen ordenantzak lantzen hasteko batzarra

ATXONDO > Datorren astelehenean, hilak 20, herri bideen ordenantza lantzen hasteko batzar zabala egingo dute Atxondon. 19:00etan hasiko da batzarra, udaletxe bategi aretoan.

Herri bideen inbentarioa landuta dute eta hasierako onarpena eman zioten azken udalbatzarrean, eta orain, horren inguruko arautegia zehazten hasiko dira herritarrekin batera.

IRITZIA

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta •
Izen-abizenak • telefonoa • helbidea
• Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

ANBOTOK ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitako eta emandako iritzien erantzukizunik.

Talde morea

Zorionak, bihotz-bihotzez, erasotzeko intentzio txikiena duenari gainean begira eta erreazionatzeko prest gaudela adierazi duzuen 300 peto more eta 150 pegatina moredu guztiei. Gure indar guztiak bildu eta erakutsi ditugu Ibilaldian. Heziketa-mailan hezkidetzaz bultzatzea dugu helburu, baina gure ikastolako kide guztien bizitzako bestelako testuinguruetan eragitea ere beharrezkoa ikusten dugu. Zalantzarik gabe Ibilaldia 2016an arazoak egon dira, jarrera ezegokiak nahi baino gehiago izan dira, gure presentzia hutsak bestelakoak bultzatu baditu ere. Arazo horien arteko asko eraso sexistatzat hartzeko modukoak izan dira. Horien aurrean eragile moreek aktiboki esku hartu genuen. Horietako asko saihestu ditugu, eraso jasan zezaketenei babesa eman diegu, eta, batez ere, jarrera ezegoki horien gainean fokua jarri dugu. Baina errealitatea ezin ezkutatu: kasu askotan harremanak izateko modu kezagarriak eta batzuk nahiko bortitzak sumatu dugu. Bereziki

kezkatzen gaituzte gazte gehien bildu ziren tokietan gertatutakoak. Aurrera begira landu beharreko esparrua da, etorkizuna euren esku egongo baita. Argi daukagu harremanen afera lan ildo garrantzitsua dela. Eredu diren harreman osasuntsuak elikatzeko gaitasuna duten gazteak egon ziren. Nagusi eurek izan ziren, gainera. Bai horixe! Horregatik, talde morearen estrategiaren baitan harreman horiek erakargarri egitea izango litzateke gure hurrengo taktika.

Gizartea eraldatzeko beharra ikusten dugu ikastolok. Prozesu horretarako eragile moreek abiatutako lana eraginkorra dela ikusi dugu, eta bide horretan sakondu beharra dagoela uste dugu. Gure mundua hemendik hasi dagigun

Aitziber Zearreta Garai, Amaia Alberdi Sarrionandia, Isabel de Blas Buruaga eta Mireia Delgado Exposito, Talde Morearen izenean

Enpresa berritzaileek “berer zerbitzura izango gaituzte”

EAJrentzat apustu “erabakiorra eta iraunkorra” da I+G+B sektorea



Aitor Esteban Kongresurako Bizkaiko zerrendaburua Zornotzako AIC-n azalpenak ematen.

EAJ J.D.

Aitor Esteban Kongresurako Bizkaiko zerrendaburua ikerketa, garapen eta berrikuntza sektoreko enpresei alderdian babesa eskaini zien atzo Zornotzako AICn (Automotive Intelligence Centre) egindako ekitaldian. “Esparru honetan apustu erabakiorra eta iraunkorra dugu” adierazi zuen, eta ministerioan enpresa berritzaileen bitartekari izateko konpromisoa hartu zuen, beharrezko proposamenak eginez: “Berrikuntza alorrean enpresek eta langileek berer zerbitzura izango gaituzte”.

Unai Rementeria Bizkaiko ahaldu nagusiak eta Estibaliz Hernáez Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuordeak ere parte hartu zuten ekitaldian.

Mitina gaur

Gaur, 19:30ean EAJk mitina emango du Zornotzako Herriko Plazan. Andoni Ortuzar Euskadi Buru Batzarreko presidentea, Aitor Estebanek eta Ixaso Atutxa Bizkaia Buru Batzarreko presidentea parte hartuko dute.



Andra Mariko elizpean batu ziren joan zen barikuan ezker abertzaleko kideak.

Beitialarrangoitia eta Matute hautagaiak, Durangon

“EH Bildu indartsu bat beharrezkoa da Madrilen”, azaldu dute

EH BILDU M.Z.

Joan zen barikuan, EH Bilduk Durangon abiatu zuen hauteskunde kanpaina. Oskar Matute hautagai bizkaitarrak, Marian Beitialarrangoitia gipuzkoarrak eta Aitor Lopez Amankomunazgoko presidentea parte hartu zuten, besteak beste. EH Bilduko kideek ondorengo adierazi zuten: “Gure helburua gehiengo demokratikoaren ametsa da, hau da, instituzioetatik PP ateratzea eta ustelkeriari eta eskubide murrizketei amaiera ematea”. Horrez gain, Andra Mariko

elizpean egin zuten ekitaldian adierazi zuten beraiek izan zirela Maroto eta Barcelona “bota” zituztenak, eta Madrilen ere egongo direla “Rajoy botatzeko”.

Bestalde, EH Bilduk Madrilen presentzia indartsua izatea aldarrikatu zuen Marian Beitialarrangoitiak. “EH Bildu indartsua beharrezkoa da Madrilen, euskal herritarren interesak defendatzeko”. Gaineratu zuen, euskal gizartearen egunerokoari eragiten dioten “erabaki gune guztietan” egongo direla, eta horretan lan egingo dutela.



Joan zen zapatuan sozialistek Landako Gunean ospatu zuten Arrosaren Eguna.

Arrosaren Eguna sozialisten buruak batu ditu Durangon

Pedro Sanchez presidentegaiak mobilizatorako deia egin du

PSE-EE Maialen Zuazubiskar

Pedro Sanchez Espainiako Gobernurako presidentegai, Idoia Mendia PSE-EE-ren idazkari nagusia, Patxi Lopez kongresurako hautagaia eta Azahara Gomez buru zirela, sozialistek Arrosaren festa ospatu zuten, joan zen zapatuan, Durangon. Ekitaldiarekin bat eginez, jendetza batu zen Landako Gunean.

Patxi Lopezek “indarra” eskatu zien Landako Gunera joan zirenei, “garaiaren indarra”. Lehendakari izandakoak gaineratu zuen, indar horregaz

Pedro Sanchez Moncloara eramatea lortuko dutela. Lopezek gogor kritikatu zuen Pablo Iglesias. “Pablo Iglesiasek ez du Rajoyren agintealdia amaitu gura. Alderdi sozialista suntsitu gura du. Eta ez diogu utziko. Ez gaitu engainatuko”, adierazi zuen Lopezek.

Pedro Sanchezek, berriz, mobilizatorako deia egin zuen. “Auzoz auzo, botoz boto” hauteskundeak irabazi ditzaketela nabarmendu zuen. Era berean, berdintasunaren alde lan egingo dutela adierazi zuen.

“Erabakitzeko eskubidea eskubide demokratikoa da”

Durangaldean mahai informatiboak jarri dituzte



Herriaren Eskubideak Podemosen aldeko kanpaina egin du.

PODEMOS J.G.

Ekainaren 26ko hauteskunderi begira, Herriaren Eskubidea alderdiak Podemosen aldeko kanpaina egin du Durangaldean. Horretarako, informazio mahaiak jarri dituzte Durangon, Berrizen, Abadiñon eta Elorrioren. Mahai horietan hainbat mezu zabaldu gura izan dituztela azaldu du Julian Rios Herriaren Eskubidea alderdiko zinegotzi durangarrak. Erabakitzeko eskubidea eskubide demokratiko bat dela azpimarratu du, eta horrek akordio zabalak eskatuko dituela.

Gobernatzeko modu tradizionalak ez dutela funtzionatzen azpimarratu du Rios. Gaineratu duenez, “paradisu fiskaletan galtzen dena baino gehiago batzea lortuko bagenu, dirua izango genuke politika sozialetan inbertitzeko”. Politikako ate birakariei eta korrupzioari ere amaiera eman behar zaiela nabarmendu du.


Ingurumenari dagokionez, energia berriztagarrien eta ikerketaren alde egin duten enpresen alde apustua egitea proposatzen dute.

> Berbaz

Agustin Leturiaga | J.A. Retolazaren omenezko ekitaldia antolatzeke taldean aritu da | Arrazola, 1946

“Arrazola Kili-Kiliren kabia izan zen zelanbait, eta hori islatu gura izan dugu”

Jose Antonio Retolazari omenaldia egin diote Arrazolan; hainbat urtean abade izan zen bertan Kili-Kili pertsonaiaren sortzailea



> BERBAZ Aitziber Basauri
Jose Antonio Retolaza (Bilbo, 1929-2014) omendu du te Arrazolan. Kili-Kili pertsonaia eta izen bereko aldizkariaren sortzailea izan zenak —eta ohorezko euskaltzaina—, lotura berezia izan zuen Arrazolagaz. Abade aritu zen bertan. Agustin Leturiagak mutikotan ezagutu zuen, eta haren euskalzaletasuna eta gertutasuna ditu gogoan.

Jose Antonio Retolaza hartu duzue gogoan Arrazolan. Hala da. Auzolanean berriztatugun Urtzillo errotaren alboan egin genuen ekitaldia. Urtzillo iturburu dago alboan. Garai bateko Arrazolako plazako iturriko ur-emia hangoa zen. Orain, elizaldeko etxoste batean dago jarrita iturri ha-

ren harria —alboan du uraska ere—. Izan ere, frankismo garaian kendu egin zuten iturri hura, eta Francoren omenez beste bat ipini zuten. Gaur egun ez dago hori. Etxostean dago iturri zahar hura.

Nortzuk elkartu zineten?

Jose Antonio Retolazaren familia eta Lander Gallastegiren familia egon ziren gonbidatuta. Bi horiek sortu zuten Kili-Kili eta, aurretik, Arrazolako eliza berriztatzen ibilitakoak izan ziren biak. Arrazolako parrokoa zen Retolaza, eta Gallastegi arkitektoa. Azken horrek diseinatu zuen Urtzillo errotaren alboan jarri dugun harria ere —Kepa Barañanok egin duena—; Kili-Kili aldizkarian azaltzen den komiki bat da, eta hortik hartu dugu. Modu horretan, Kili-Kili-

ren kabia moduan aurkeztu gura izan dugu Arrazola.

Hala izan zen?

Retolazak ez zuen Kili-Kili sortu Arrazolan abade zela. Geroago jaiotako pertsonaia da, San Antonen jardun zuenean sortu zuen. Retolaza Bilbotik etorri, eta Arrazola moduko herri oso euskaldun batez izandako harreman horrek, uste dugu, zuzenean eragina zuela berarengan. Zelanbait, Arrazola Kili-Kili aldizkariaren kabia izan zela uste dugu; hori islatu gura izan dugu. Euskal zaletasunaren iturria sinbolizatu guran jarri dugu harria Urtzilloko iturburuaren alboan. ‘Errota zahar maitea’ abestia gogoan hartuta egin dugu ekitaldia Urtzillon. Kultura arloan guretzat zer izan den erakutsi gura izan dugu.

“*Euskara oso bizi ikusi zuen Arrazolan, eta hunkituta bizi zuen hura*”

“*Berarekin ezpatadantza ere ikasi genuen; taldea osatu genuen*”

2002tik ohorezko euskaltzain, idazlea eta umeak euskaraz alfabetizatzeke tresna izan zen Kili-Kili aldizkariaren sortzailea mutikotan ezagutu zenuen. Nola gogoratzen duzu?

Bera Arrazolan abade zela joan ginen gu seminariora, Deriora. Mutikoa nintzen ni, 10-12 urtekoa. Hala ere, beragaz harremana mantentzen jarraitzen genuen. Desberdina zen. Aurretikoak eskuan muin egitekoak eta ziren. Dena aldatu zen bera Arrazolara etorri zenean. Neskato-mutikoeekin egotekoa zen, eta euskararekiko zuen zaletasuna geure egin genuen: Bilbotik etorritako batek guk euskaraz zelan egiten genuen jakin gura zuen... pedagogikoki ere uste dut guretzat garrantzitsua izan zela. Beragaz ezpatadantza ere ikasi genuen, taldea osatu genuen. Nagusitxoagoak ginea ere, hainbat ekintza egiten ge-

nituen euskaraz sakontzeko, alfabetatzeko batez ere. Gero, San Antonen (Bilbo) abade zegoela ere seminarioan tutore moduan ere izan nuen aldi batean. Bilbon Kili-Kili jaio zenean gu laguntzen joaten ginen, irteerak antolatzen, herrietan ekitaldiak antolatzen... Horrelakoetan laguntzen genuen.

Aurten 50 urte beteko dira Kili-kili sortu zela. Retolazaren omenez jarritako harria ‘Jose Antonio Kili-Kili’ jarri duzue. Bai. Aipatu moduan Euskal Herri osora zabaldu zen argitalpen hori, aurrera eramateko keken hori hemen sortu zitzaizkion. Kili-Kiliren kabia izan zelakoan. Bilbon ere erakusketa dago zabalik Kili-Kili argitalpenari buruz.

Mundu osoan meza euskaraz lehenengoz Arrazolan eman zen, Retolazak sustatuta, ezta? Bai. Berak eta Klaudio Gallastegik; harreman handia zuten. Bertan egon nintzen neu ere. Francisco Ballester Vieuk eman zuen, bizantziar-melkita errituan. Vatikanoko II. kontzilioa baino lehen izan zen. Hori gogoratzen duen inskripzioa ere badago elizan. 2002an jarri zuten.

57 urte beteko dira ekainaren 21ean. Bertan egon zinen. Nola gogoratzen duzu?

Mutikoak ginen gu. Dantzan ere egin genuela uste dut. Gu euskaraz bizi ginen; hitanoa ere erabiltzen genuen, eta horrek harritu egiten zuen Retolaza. Euskaraz oso bizi ikusi zuen Arrazolan, eta hunkituta bizi zuen.



Arrazolako Urtzillo errotaren alboan egin zuten Retolazaren omenezko ekitaldia.

Musika beltza entzun eta dantzatzeko piknika, etzi, Tabiran

Uda Kalean Bizi programazioak dakar ekainaren 19ko piknik musikala Durangoko Tabirako zelaira

> MUSIKA I. E.

New Orleans (AEB) hiritik inportatutako estiloan, egun pasa musikala antolatu du Durangoko San Agustin kultur guneak domeka honetarako. 12:00etatik aurrera, eta 18:30 arte, Tabirako zelaian elkartu, eta hainbat musika taldek jotzen duten bitartean, bertan bazkaldu, zuzeneko musika entzun eta dantzatzea da proposamena.

Musika beltza izango da nagusi domekan, Tabirako kultur ekitaldi berezi horretan: Durangoko Bartolome Ertzilla musika eskolan sortutako Bart Sax eta Bertzi Marching Band taldeek joko dute, batetik, eta Iruñeko Broken Brothers Brass Band taldea ere gonbidatu dute Durangon aritzera. Gasteizko Savoy Swing Up elkartekoen eskutik, Durangoko eta Iruñeko musikarien doinuak dantzatzeko tailerrak ere izango dira, gainera, Tabiran.

Piknik musikala esaten diote egunez eta aire zabalean musikaz gozatzeko bestelako eskaintza egiten duen proposamen honi. Norberak etxetik eramandako jana bazkaldu bitartean, zuzeneko musika gozatzeko aukera da. Lehenengo aldia da horrelako hitzordu bat antolatzen dena Durangon, eta eguraldiaren oso menpeko ekintza izango da: euria egiten badu, bertan behera utzi beharko dute.

Musika eskolatik piknikera
Durangoko Bartolome Ertzilla musika eskolako irakasle bik gidatzen dituzte domekako piknik musikalean joko duten Bart Sax eta Bertzi Marching Band: Itziar Castrillok eta Ander Erzillak, hurrenez hurren.

Musika eskolako jardunaren primerako osagarria da ikasleentzat talde horietan jotzea: musika tradizionala abiapuntu hartuta kaleko musikak jo eta inprobisazioagaz esperimentatzeko aukera eskaintzen baitie.

Bart Sax taldeak, Durangoko beste musikari batzuekin kolaboratu izan du *Go Black* ikuskizuna sortzeko, esaterako. Bertzi Marching Band taldeak, bestalde, Durangoko Ibilaldian jotzeko aukera izan du orain denbora gutxi.



Ander Erzilla irakasleak eta hainbat ikaslek osatzen dute Bertzi Marching Band.



Gasteizko Savoy Swing Up elkartekoen eskutik dantza ikastaroak egongo dira.



Itziar Castrillo irakasleak eta bere ikasleek dihardute Bart Sax taldean.



Areta tuba-jotzailea eta Otsoa de Aspuru tronbonista durangarrak dira.

Broken Brothers Brass Band iruñarrak ere joko du, domekan

Tartean, Durangoko musikari bi dituen taldeak ere joko du etzi, Durangon

Iruñeko taldea da Broken Brothers Brass Band, baina taldeko hamar musikarietatik bi durangarrak dira: Alfonso Areta tuba-jotzailea eta Txarli Otsoa de Aspuru tronbonista. Amama Luisa Brass Band taldean ibilitakoak dira biak, eta duela hamar urte hura desegin zenetik jotzen dute Broken Brothers taldean.

New Orleanseko banden musika da Broken Brothers Brass Band taldean egiten dutenaren eredu: funkya, gopela eta jazz modernoa uztartzen dituzte. Aurten, *Ildoa landuz* izenburuko hirugarren diskoa kaleratu du Iruñeko tadeak: doinu dantzagarrien bilduma. Jazz erritmoez gain, indiak, funkyak eta

rapak ere badute lekua taldearen disko berriko, kantetan.

Etzi, 13:30etik 15:00etara ibiliko da Broken Brothers Brass Band Tabiran jotzen. Durangon antolatu duten piknik musikalean bertako musika eskolako ikasle gazteek ere parte hartuko dutela aprobetxatuta, Bart Sax eta Bertzi Marching Band taldeekin joko dute esperientzia handiko Broken Brothers Band-ekoek: “Bi-hiru kanta joko ditugu eurekin”, dio Aretak.

Kalean zein oholztatik jardutera oso ohituta daude Broken Brothers Brass Band-ekoak. Areta durangarraren berbetan, “denetik egiten dugu: hiletetan, ezkontzetan, denetariko lekuetan jo izan dugu”. Eta oholztza

inportanteetatik ere aritu izan dira: Donostiako Jazzaldian hainbat aldiz jo dute, eta aurten ere hiru egunetan arituko dira han. San Ferminetan eta Zornotzako jaietan ere joko dute, besteak beste, uda honetan.

Zaletasunaren jatorria

Euskal Herrian bizi zen Renato Valeruz musikari austriarraz — “jazzaren fanatikoa-gaz” — ikasitakoa da Broken Brothers taldeko Txarli Otsoa de Aspuru eta Alfonso Areta musikari durangarren zaletasunaren jatorria. Valeruzek Durangon zein Iruñean ikasle izan zituen gazteek sorturikoak izan dira Amama Luisa zein Broken Brothers proiektuak.

Amurizaren eta bere lanaren bueltan elkartzeko hitzorduak

Bere bizitzan egindako lana eskertuko diote asteburu honetan Amurizari



Amurizaren lekuetatik 'erromesaldia' egin ostean, Berrizen elkartzeko dira herri bazkaria egiteko. L. Elorriaga

> **BERTSOLARITZA** Itsaso Esteban Maiatzean 75 urte betetzeaz batera, plazetako jarduna utziko duela iragarri ostean, bere bertsokide eta lagunak eskutik hainbat eskertza ekitaldi izan ditu Xabier Amuriza bertso-

lariak azken egunotan. Gaur hainbat musikari, bertsolari eta artistak prestaturiko ikuskizuna eskainiko diote, Durangoko Plateruenean. Berak idatzitako *Mendian Gora* kantatik hartutako "Emaidazue freskura" esae-

ra ipini diote kantaldiari izenburua. Aspaldi daude agortuta, gaur, 22:30ean, Plateruenean izango den emanaldi horretarako sarrerak. Igelaren Banda, Tapia eta Leturia, Mursego, Mikel Markez eta Josu Zabala,

Anje Duhalde, Miren Amuriza, Maialen Lujanbio, Natxo de Felipe eta Anton Letxa, Leire Bilbao, Gotzon Garaizabal eta Peru Magdalena arituko dira gaurkoan oholza gainean. Ordu t'erdiko ikuskizuna izango da *Emaidazue freskura*, eta Amurizak bere ibilbidean zehar idatzitako letrak izango ditu oinarri.

Amurizaren ibilbideko hiru ardatzen bueltan berbaz jarduteko hitzordua egin zuten atzo, Zornotzako Zelaieta zentroan. Andoni Egañak, Edurne Brouardek eta Kepa Altonagak, Amurizaren sorkuntza, hizkuntzalaritza eta gizarte eragiletza izan zituzten hizpide.

Amurizaren lekuak

Amurizaren bideak eta aireak "erromesaldi artistikoa" antolatu dute Amurizaren lagunak, ekainaren 19rako: bere jaioterrian, Zornotzako Etxano auzoan hasi eta Berrizen amaituko dute domekako ibilbidea. Hainbat geldialdi izango ditu "erromesaldi" horrek bidean, eta Berrizen herri bazkarian elkartzeko emango dute ospakizun asteburu amaitutzat.

GEURE DURANGALDEA

ANTTON URIARTE

Musikaria



Ez ginen itxaroteko jaiak

Udan sartzeaz batera, ikasturtea bukatu eta sarri egiten da atzera bistaz errepa-soa. Eta ez uste, horretan ere, autokritikatik baino konformismotik daukagula esango nuke. Aurreikusitako ideiak, ametsak eta asmoak galbiderantz bifurkatu izanari beti aurkituko diogu pisuzko arrazoi bat, edo asmatu. Ze demontre, gure burua zuritzeak hori (ere) merezi du.

Eta zikloa berreraikiz, ñabardurak gorabehera, gure bide zaharberitu horri ekingo diogu berriz, hasierako puntu beretik. Sinestara zigutelako bazela bide bat, aski zabala burujabetasun autokonplaziente bat izateko bestekoa. Ikasi genuen jator eta esker oneko izaten, datorrena datorrela hartu, eta bere horretara gure burua lekutzen. Inkonformismoa, bide batez, dosi txiki eta difuminatuetan aireraten. Eta ondoren letorkez zoria, jaingo-jainkosak edota destinua, zientziak egundo azaldu ez dituenak azaltzeko hiztegiak ahalbidetzen dizkigun betaurreko opako horiek. Hona zerk ekarri gintuen erantzuten ikasiko dugu horrela, hona zergatik eta zertara etorri nahi genuen ikusi beharrean.

Hortaz, nahi duzuen eta nahi duzuela, hitz egin genezake patuaz, denboraz edo tokiez. Egindakoaz, hanka sartzeaz eta erabakiez. Eta jakin beharko genuke aski gai gurea gure bidea urratu eta gure espazio propioa sortzeko, denborak baioa izate bere lekuan jartzen omen duen arren, ez ginen jaiak eta itxaroteko!

Nobela berria aurkeztu du Iñaki Irasizabalek


Pederastia kasu bat da istorioaren abiapuntua

> LITERATURA I.E.

Gauzak ez ziren sekula berdinak izango izenburua du Iñaki Irasizabal (Durango, 1969) idazleak maiatzean aurkeztu duen nobela berria. Elkar argitaletxeaz gaztaz plazaratu du, 2011tik urtero kaleratu dituen liburuak bezala. Azken horiek bezala, genero beltzekoa da azken lan hau ere. Nobela beltza, istorio entretenuak sortzeko modua ezezik, "aldi berean gai sakonak aztertze aukera ematen duelako" baliatzen du Irasizabalek.

Pederastia kasu bat da *Gauzak ez ziren sekula berdinak izango* liburuaren istorioaren abiapuntua. Susmagarri na-

gusiaren laguna da liburuaren protagonista gaztearen aita, eta bere lagunak egin duena jakin arren ezikusiarrena egiteaz salatzen dute. Lan eskaintza bat onartu eta ospa egiten du protagonistaren aitak atzerrira.



'Noctis Labyrinthus' Casajaran proiektatuta

Ekainaren 24an izango da Elorrioko emanaldia

> ARGAZKIGINTZA I.E.

Txelu Angoitia, Jesus Mari Arruabarrena eta Segun Lazkano argazkilarien lana biltzen duen *Noctis Labyrinthus* proiektua eskainiko dute, ekainaren 24an, 22:30ean, Elorrioko Casajara jauregian. Durangaldeko argazkilarien "ilunari begiratzeko hiru modu" biltzen ditu proiektu horrek: Angoitia-*ren Angst*, Arruabarrenaren *Moo* eta Lazkanoren *Ero*.

Azken hilabeteotan hainbat lekutan eskaini dituzten emanaldietan bezala, idazle ezagunen testuak irakurriko dituzte, irudien osagarri, Angoitia eta Arruabarrenak. Fran Lasuen

musikariaren doinuek lagunduta arituko dira argazkilariek testuak errezitatzen eta argazkiak proiektatzen.

Hainbat idazleren testuak irakurriko dituzte Angoitia eta Arruabarrenak, irudiak proiektatu bitartean

2013an, Elorrioko jauregi horretan hasi zuen bidea Durangaldeko hiru argazkilarien *Noctis Labyrinthus* erakusketak: Musikaire kultur egitarauaren barruan zegoen hura ere.

Picnic Musikala Tabiran
EKARRI ZURE PIKNIKA ETA GOZATU GUREKIN TABIRAKO ZELAIAN

Ekainaren 19a, igandea
12:00 - 18:30

12:00-13:30 Lindy Hop Dantza taller irekia
Colectivo Savoy Swing Up (Vitoria-Gasteiz)

13:30-15:00 Musika: Broken Brothers + Bartolome Ertzilla
musika eskolako Marching Band

16:00-16:30 Historia del swing Hitzaldia

16:30-18:30 Musika + dantza:
Bart Sax (Bartolome Ertzilla musika eskola)

uda kalean bizi 2016 san agustin kultur gunea kalean
MUSIKA ZIRKOA DANTZA ANTZERKIA

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA EGUNEKO MENUA IGANDEETAN MENU BEREZIAK

soinua EKAINAK 21 19:00etan SOINUA MUSIKA ESKOLAKO IKASTURTE AMAIERA

DURANGO'S PUB QUIZ EKAINAK 24 21:30ean LEHIAKETA

NOE eta ASIER DANTZA EKAINAK 25 20:00etan

BURU - ETEKINA AREAGOTUZ

Informazioaren aldia bizi gara eta gure gizarte honetan lehia-korrek izateko liburu, egunkari, aldizkari, posta elektronikoko, internet eta beste hainbat bide-tatik iristen zaizkigun informazio kopuru handiak barneratu beharrean gara.

Inoiz baino premiagoa dugu berezko ditugun gaitasunak hobetu eta eguneratzea; berezitasunez irakurketa-gaitasunak gaurkotzea ezinbesteko dugu hori baita, edozein ikasketa egokitasunez garatu ahal izateko erabat zorrotzuta izan behar dugun gaitasuna. Behar diren teknikak erabiliz askoz azkarrago irakurtzeko gaitasuna izateak, besteak beste, informazio gehiago irakurri, norbere hiztegia aberastu eta eduki askoz gehiago epe laburrean memorizatzea ahalbidetzen du.

Irakurketari hitzez nonahi egotzen diogun garrantzia eze-rezean gelditzen da ez baita errealitatean garrantzi horren lekuko jarduerarik garatzen ez gure ekintzen bitartez hitzez dioguna eginez adierazten.

Errealitateak etengabe erakusten digu gizakiak bere baitan dituen kongruentziarik eza eta kontraesan ugari. Hainbatetan aipatzen da irakurketaren garrantzia guraso eta helduengandik baina egia esan, gehienetan adierazpen hutsalak baino ez dira. Praktikatzan ez den ekintza baten inguruko azalgeria. Irakurketa nabarmen hobetzeko ahalegin oso gutxi egiten da. Benetan ematen zaion garrantziaren seinale.

Irakurketan hanka motz gabilta. Gutxi irakurtzen da eta irakurtzen denak ez du kalitate eta eraginkortasunik. Astiro, motel, eta ulermen urriz irakurtzen da. Gizakiaren hein txiki batek baino ez ditu hileru bi liburu irakurtzen. Zerbait esan nahi du. Irakurtzen duguna gara, ez ikasten duguna.

Akats asko ditu irakurle gehienek ohiko irakurketak eta akats horiek ikasketa prozesua eta norbere heziketa eragotzi besterik ez dituzte egiten, irakurritako informazioarekiko ulermen murrizak nekea eta atsegintasunik eza sorrarazteaz gain mesederako baino kalterako bide gehiago ezartzen baitituzte. Astiroegi irakurtzeak ulermena zeharo oztopatzen du, irakurketa-abiadak ulermenezko irakurketarekin zerikusituzena baitauka. Ohiko irakurketak dituen akats guztiak zuzendu eta irakurketa azkarerako teknika desberdinak ikasi,

barneratu eta erabiltzeak, bakoitzaren trebetasunak errotik hobetzen ditu. Geure esku dago arlo horretan hobeak izatearen erabakia hartu eta behar diren urratsak ematen hastea edota daukagun irakurketarako gaitasun urri eta motelarekin konformatuz jarraitzea.

Ikasturtea laster bukatzera doa eta hemendik aurrera, uda aroa bitarte dela, datozen hila-beteotako ikasleen oporraldi luzean zehar abagune egoki asko izan daitezke ikasturtean zehar, irakurketa-gaitasunak hobetzeaz hausnarketa sakona egitetik haratago, egindakoen inguruko oldozmen barrenekorek egiteko.

Zalantza izpirik gabe, hobetu beharrekoak lirakeen hutsune, ekintza, trebetasun, ikasbide eta antzekoen azterketa egitea egokitzen da, norbere gaitasunak eguneratu, doitu eta biribiltzeko jarduerak zeintzuk izan litezkeen ezarri. Hobe-kuntzarako bideak oldozmenak prestatzen ditu.

Tamalez baina, ez da horrelakorik egiten eta udaldian ezer gutxi dagie ikasleek euren trebetasunak hobetzeko hori baino beste eginbehar batzuei garrantzi handiagoa ematen baitzaie.

Edozein kasutan datorren ikasturtea hasi aurretik, aro egokia dira udako hilabete hauek ikasleen prestakuntza alde batera utzi gabe metodologia berriak barneratu eta ikasturte berriari izango diren betebeharrak hobeto garatzeko lagungarri diren ikasbide berriei jabetuz lasaitasun eta erosotasunez ikasturte berriari aritzeko.

Ohiko ditugun jarduera edota prozesuak aldatzen ez baldin baditugu emaitzek berdinak izaten jarraituko dute eta, ondorioz, ez dago gure jardueretan ezer aldatu gabe emaitza desberdinak izan daitezkeenaren itxaropen edota asmotan bizi izaterik.

Bukatzear dagoen ikasturte honetan ikasleek izan dituzten larritasun, egonezin, arazo ugari eta gainditu beharreko egoera desatseginak eta euretatik eratorritako gurasoen artegatasun eta urduritasunak datorren ikasturtean eragotzi nahi baldin badira, ez dago udaldi honetan dagozkion neurriak hartzea baino beste biderik.

Ikasleek dituzten ikasketa arazo horietatik gehienak, eskolan irakatsitako ohiko irakurketan eta ikasteko inolako metodologiarik irakatsi ez izanean, besteak beste, oinarritzen dira.

Ikastetxe eta gurasoek ikasleengandik etekina espero dute, ikasleek egokitasunez ikasi eta memorizatzeke gaitasunak gain etekina izateko gaitasuna ere izan behar baitute; hori eskatzen zaie baina horretarako tresna eraginkorrik ez zaie eskaini ez irakasten.

Ikasleek, ikasketa prozesua era aktiboan mantentzetik haratago, denbora jakin batean zehar eta era jarraituan memorizatzen jakiteaz gain, denbora horretan guztian eraginkorrak eta ekoizkorrik ere izan behar dute. Hori da etekin mentala.

Astiro irakurtzeak ulermena eta ikas-prozesua erabat oztopatzen ditu emaitzetan eraginez

Gurasoek ikasleei etekina eskatzen diete baina ez zaie horretarako tresna egokirik irakasten

Buru-etekina edota etekin mentala ikastetxean bakarrik ezeze bizitzaren beste gainerako arlo guztietan, hau da, unibertsitatean, lan esparruan eta oro har bakoitzaren bizitza pertsonalean ere ezinbesteko da. Buru-etekinari arreta berezia eskaini beharko genioke guztiok, guraso zein irakasleok, ikasleek euren trebetasunetan izaten duten gaitasun-mailaren arabera izaten baita.

Neurozientzian izan diren azken ikerketen arabera bu-

ru-etekin horren oinarri diren garun-funtsa, kognitiboa, eza-gutzen hasiak gara eta horren harira, irakurketan, idazkeran edota matematiketan nolabaiteko eragozpenak izaten dituzten ikasleen buru-etekina askoz ahulagoa da. Beraz, arreta berezia eskaini beharko genieke buru-etekinean hainbesteko garrantzia duten aipatutako hiru arlo horietan ikasleek garapen egoki eta bikaina izan dezaten.

Buru-etekinak bere burmuin-oinarri izan daitezkeen hiru prozesu kognitibo gutxien behar ditu: arreta, lan-memoria eta egikaritzea-zereginak. Prozesu horietako edozeinetan edonolako aldaketak eragiten ditu burmuinaren etekinean.

Arretari dagokionez, sarritan entzun izan ditugu ikasleak arreta jartzeko eragozpenak dituela edota arreta luzaroan mantentzeko oztopo handiak antzematen dizkiotela eta antzerako adierazpenak. Egia esan, arretarik gabe ez dago gure inguruan ditugunak ezagutzerik eta are gutxiago dena delako lanbide edota zereginean ezer ikasi eta memorizatzerik.

Lehenengo eta behin funtsezkoa da oinarrizko arreta-maila izatea, adi egoteak dakarren arreta agertzea; inguru fisiko-tik edota giza-ingurutik zehar datozkigun gertakari edo ekintzei erantzuteko besteko arreta-gaitasuna izatea, hori baita informazioa baitaratzeko gaitasuna eta abiada zehazten dituen arreta-egoera. Ondo lo egitea ere oinarrizkoa da arreta maila hori mantentzeko lagungarri baita.

Buru-etekinari zuzen eragiten dion bigarren osagarri kognitiboa dugun lan- edo ikas-memoriari ere faktore askok eragin diezaioke eta horien artean ikasle bakoitzak berea duen eritmo biologikoak eta loa lirakeke.

Memoria dugu arrazoibidea edota argudioak sortzea ahalbi-

detzen duen kontzeptuen arteko loturak ezarri eta mantentzen dituen gaitasuna. Memoriak ahalbidetzen digu telefono zenbakiren bat adierazten digutenean une labur baten gogoratzeke gaitasuna, nahiz eta ondoren, gure arreta-gunea aldatzean, telefono zenbakia ahantzi.

Azkenik, egikaritzea zereginaren baitan ondorengoak bezalako ezagutza-prozesu korapilatsuagoak kokatzen dira: inizatibarako gaitasuna, helburuak ezarri, planifikazioa, burmuin-eragiketa eta ekintzen garapena, jarrera ororen kontrola, erabakiak hartzea, eta, berezitasunez, besteekin izan ditzakegun harremanetan erantzunak zaindu eta norbere ekintzekiko kontrola.

Ikasleen buru-errendimendua hobetu edota sustatze aldera egoki lirakeke ondoren aipatzen diren ekintzak abiaraztea: Alde batetik, zeregin jakin bakoitzari (idazlan bat idatzi, irakurgai irakurri, irakaslearen azalpeni so egin, etab.) esleitu diezaiokegun denbora kontrolatu egin behar da. Bigarren, ikasle bakoitzaren eritmo biologikoak ere aintzat hartu behar dira. Hirugarren, ikasle bakoitzak egin beharrekoak dituen zereginik korapilatsuenak egiteko egunaren ordurik onenak hautatu (goiz erdian edota arratsalde erdia). Azkenik, itxuraz hutsaltzat jo eta ohikotzat ere aintzat hartzen ez baldin baditugu ere, erabateko garrantzia dute buru-etekinari dagokionean ikasleek lo eta glukosa faltan ez izatea egikaritze-funtzioetan, (eta ondorioz buru-etekinean) eragin zuzen baitute.

Amaitzeko, gure gaitasunak uste ditugunak baino askoz handiagoak dira. Gaitasunok garatu eta bikainagoak izatea gure esku besterik ez dago eta horretarako ez dira jarrera eta erabakia besterik behar, gaitasuna guztiok baitaukagu.

 **PRAKAGORRI**
Reading skills

Tel.: 944 915 763 · prakagorri@prakagorri.es

irakurri 4 ALDIZ ARINAGO
EMAITZA HARRIGARRIAK !

Hobetu egizuz zure irakurketa-abiada eta ulermena!
Errotik aldatuko dozuz zure irakurketa-gaitasunak.
Irakurketa-abiada handia eta ulermen bikaina.



9 urtetik aurrera, adin muga barik, **PRAKAGORRI** dozu zure eta zure seme-alaben urtenbide



GREMIOEN GIDA



ARKITEKTURA

**ARKI
TEK
SAN**

OBREN ZUZENDARITZA
PROIEKTUAK / BIRGAITZEAK
ERREFORMA ETA GARAPENERAKO
NEGOZIO LOKALEN PROIEKTUAK
ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOAK
NEURKETAK, PLANOAK
ETA AURREKONTUAK EGITEA
ERAGINKORTASUN
ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK

WWW.ARKITEKSAN.COM
622 745 419
NIZETO URKIZU 12. ELORRIO
INFO@ARKITEKSAN.COM



GARBIKETA

**AZKARGI
GARBIKETAK**

Auzo elkarte, garaje
eta obra osteko garbiketak

Goietia, 46 - 2 esk. ELORRIO
Tel.: 615 791 215



LOREZAINNTZA

Jardines
Patxi
Lorategiak

Mantenua eta diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Montevideo, 23-1 ezk DURANGO
PATXI: 696 463 085



ITURGINTZA

Mallabiena 

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com


Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO
188 PK.


**UNAI
GARAY**
ITURGINTZA · BEROGINTZA · GASA

Kanpatorrosteta 7B, 3.A · 48200 Durango
659 673 790 · unaigaray@yahoo.es



DEKORAZIOA

JAIObarnizatuak

Markoen, ateen, zokaloen,
armairu aurrekaldeen eta
era askotariko altzairuen lakadura.

Pintura eta pintura apaingarria.
Era guztietako zaharberritzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



LEIHOAK

Leihoak 

ALUMINIOA · PVC-A · MISTOA

Casimiro Astola kalea, 12 ABADIÑO
info@ventanas-durango
Tel.: 652 736 339
www.ventanas-durango.com



**Profesional
onenak zure
zerbitzura!**

Iñaki Iza (Zornotza, 1986) | Pilotaria |

“Ez nuen pentsatzen bizkarreko minak eguneroko bizimoduan eragingo zidanik”

Minagatik profesionalekako ibilbidea amaitzeaz dagoela, bizitza normala egin ahal izatea du lehentasun

> PILOTA Markel Onaindia
Gaztetatik pilotari elegantea izan da Iñaki Iza. Bere debuta esperantza handiz jarraitu zen, eta goi mailan egoteko promesetako bat zen. Klasea eta ofizioa sobera zituen, baina lesioekin edukitako zorte txarrak aurreikusten zen ibilbide gozoa garrastu dio. Kontrata amaitzeaz duela, osasunak arduratzen du; izan ere, aspalditik pilotalekuan sentitu izan duen gerriko mina handitu, eta egunerokoan eragiten ari zaio. Horrelako amaierarik espero ez arren, aurrera begira ipinita dago: neskenetako pilota eskola baten sorreran laguntzen dabil Zornotzan. Pilotalekuko eleganzia, berbetan ere igaritzen zaio.

Lehenengo eta behin, zelanzauze, Iñaki? Ebakuntza bi egin dizkizute. Bizkarrezurreko orno bat mugituta daukat, eta disko batean desgastea daukat. Lehenengo ebakuntzan, mina kentzeko blokeo bat egin zidaten. Bigarren egunetik aurrera igartzen hasiko nintzela esan zidaten, baina ez nuen hobekuntzarik iga-

rri egun bakar batean ere. Orain dela hile eta erdi egin zidaten bigarren ebakuntza. Bizkarrezurreko nerbio batzuk erre zizkidaten, gerrialdeko sentsibilitatea galtzeko. Baina berdin-berdin. Azken hamar egunak txarrak izan dira. Azaroaren 21az geroztik jokatu barik nago, eta pilotan jarraitzea zaila izango zela jakin arren, ez nuen pentsatzen eguneroko bizimoduan eragingo zidanik. Lo egitekoan ere min ematen dit. Anikoki desgastea dakar, baina ondo daramat, eta badut esperantza hobera egiteko. Uneotan, bizitza normala egin ahal izatea da nire lehenengo helburua.

“**Orokorrean, zornotzarrek emandako babes eskertzen dut**”

Pilotaren ajea dira eskuetako eta lepoko lesioak...
Imajinatzen dut norberaren gorputzak ere edukiko duela zirikusia. Batzuek urte asko egin dituzte elitean lesio larriarik barik. Debutatu eta eskuko minekin hasi nintzen ni; besoko nerbioaren galera etorri zen gero; gerria; beste eskua...

‘Q’ sukarra ere pasatu zenuen.
Inork ez du hori harrapatzen; bada, neuk harrapatu nuen!

Behin esan zenidan partidu asko ez ikustea erabaki zenuela...
Ez da erraza. Niri pilota ikustea gustatzen zait, baina egoera honetan inbidia sana etorri izan zait. Baina, bueno, lehen helburu moduan bizitza normala egitea ipintzen duzunean, pilota urrunago ikusten duzu. Apurka-apurka banoa partidu gehiago ikusten, eta frontoi batzuetara ere joan naiz.

Lana baino gehiago izan da pilota...
Egia da ibilbidea amaituko dela ikustean buruari buelta asko ematen dizkiozula: ez naiz gehiago Tolosara entrenatzera

edo Iruñera jokatzeraz joango; ez naiz aldagela batean egongo; ta-koak edo praka zuriak ez ditut ipiniko... Gehien baloratu dudana giroa izan da: zure aurka jokatuko duenagaz aldagelan ta-koak ipintzen egotea, munduan gertatutakoak komentatzen, adibidez. Bestalde, pilotak Euskal Herri osoa ezaguzeko aukera eman dit, eta hori asko baloratzen dut.

‘Berria’ egunkarian adierazi zenuen lesioekin gogortu egin zarela pertsonalki.
Horrela da. Topiko bihurtzen da, baina egia da. Askok baloratu izan ditut min barik jokatuta-

“**Gure talde berriagaz neskatoek erreferentzia bat edukiko dute**”

ko partiduak. Pazientzia behar duzu, eta lan eginez gero denak dauka irtenbide bat. Bizitzako beste eremu batzuetarako ikasi dut.

Babestuta sentitu zara?

Bai. Zornotzan jende piloa ezagutzen dut, eta igartzen da niganako interesa eta babes. Horrelako momentuetan ikusten da nor datorren interesagatik eta nor lagun sentimenduagatik. Baina, familia eta lagunak hor egon dira beti, eta, orokorrean, zornotzarrek emandako babes ere asko eskertzen dut.

Aurrera begira, Zornotzan nesken pilota eskola baten sorreran laguntzen zabilta.

‘Erdu pilotan’ dauka izena talde berriak, eta hutsune bat sumatu dugulako jaio da. Umetan jokatu izan nuen nesken aurka, eta maila parekatuan, gainera. Baina 12-13 urteaz, eurek ez dute jarraipenik edukitzen esku pilotan. Orain, zenbait herritan hasi dira taldeak sortzen, eta federazioak ere partiduak antolatzen ditu. Gure talde berriagaz neskatoek erreferentzia bat edukiko dute, eta adin batera ailegatzear jarraipen bat izango dutela jakingo dute. Inskripzioa amaitzean, adinen araberrako taldeak egingo ditugu. Neskena oinarrian egon arren, mutilak ere hartuko ditugu, eta palan jokatzeke aukera ere egongo da. Bestalde, herriko beste elkarteekin ekintzak garatuko ditugu, mendi irteerak, adibidez. Itxaropentsu gaude.

Berritzailea da, beraz.

Ez da pilota eskola konbentzionala izango. Entrenamenduetan, adibidez, umeez ez dituzte hamar sake, hamar dejada eta hamar gantxo egingo. Partiduetan, maila baxuagoa duena kan-txa bazterrean geratu ohi da, eta ez du disfrutatzen, umiliazioa gertatzeaz gainera. Horrelako gauzak ez pasatzea da gure asmoa. Ezin da gertatu pilotari batego partiduak ez jokatzea.

Pilotagaz lotuta jarraitzeko modu bat izan ahal da, ezta?

Bai. Beti gustatu izan zait umee-kin egotea, baina ez dut denbora askorik eduki pilota eskolan laguntzeko. Libre egon naizenean lagundu izan dut, eta orain denbora libre gehiago dudanez, oso pozik jardungo dut eskola berrian. Umeei erakusteak beti piztu dit interesa; irakasle ikasketak egiten nabil, eta ahalik eta arinen amaitzea espero dut.

Sorginen Lasterketako aurtengo aldia Anboto mendi gainetik igaroko da, irailean

Beste mendi lasterketa denetatik bereiztuko duten osagaia gehitu gura izan diote



Sorginen Lasterketa kultur elkarteak antolatuko du mendi lasterketa Durango Kirol Taldearen laguntzagaz.

> MENDI LASTERKETA J.D.
Irailaren 17an lehiatuko den Sorghinen Lasterketa ibilbide eraberrituagaz dator. Nobedade nagusia da parte-hartzaileak lehenengoz Anboto mendi puntatik igaroko direla.

Mendi lasterketen proba asko daude gaur egun, eta "konpetentzia handia dago", dio Garazi Sampedro Sorghinen Lasterketa kultur elkarteko kideak. Gainera, ibilbideek antzerako osagaiak izaten dituzte, Sorghinen

Lasterketakoak barne. Horregatik, parte-hartzaileak erakartzeko eta azken urteetan izenemateak izan duen beherakadari aurre egiteko, "bereizgarria eta zailtasun teknikoari dago-kionez desberdina den ibilbidea

diseinatzen saiatu gara". Anbotok baldintza horiek denak betetzen ditu, eta lasterketa mendi puntatik igaroko da aurreten. Zabalaunditik igo eta Asuntza aldera jaitsiko dira: "Gune batzuetan sokak ipini beharko ditugu. Ohi baino arriskutsuagoa da. Alpinoagoa, italiarragoa izango da, baina baita polita ere. Aurtengo ibilbidea interesgarriagoa da", azaldu du ibilbidea diseinatzen ere aritu den Oier Ariznabarretak.

Proba gogorragoa izango denez, laburragoa egitea erabaki dute: 28 kilometro beharrean, 17 izango ditu.

Aurtengo beste nobedadeetako bat mendi lasterketa domekan beharrean, zapatu arratsaldean egingo dutela da.

Izen-ematea dagoeneko hasita dago www.herrikrosa.eus webgunean.

ADITUAREN TXOKOA

UNAI ZAMALLOA
Saskibaloia



Aldaketak, jarraipenak, talde eraketa...

Denboraldia amaituta dago, eta denok dauzkagu buruan aurreten izandako eta bizitako guztiak... Durangoko Tabirako Baquero neska-mutilek jokatu-tako igoera faseak, Ametx Zornotzaren denboraldi irregularra...

Hori guztiaburuan izanda, datorren denboraldiaren prestaketan ari dira denak buru-belarri.

Ametx Zornotzak 25.000 euro behar ditu Zilarrezko LEB-2 mailan taldea mantendu ahal izateko. Bai, horrela da. 2013/2014 denboraldian hasi zen proiektua, eta momentu honetan kili-kolo dago. Zuzendaritzak, Klubak eta denek eginda lan bikaina eta handia arriskuan dago, zoritxarrez. Babesle berri bila dabilta aurrera egiteko. Ia betetzen den eta aurkitzen duten. Aupa Zornotza!

Tabirako Baqueren taldeetan ere aipatzeko berriak ditugu.

Mutulen taldean entrenatzaile aldaketa egon da. Iskander de Diosen ordez Tomás de Castro dator bueltan, eta aurreten landutako bidetik jarraituta, taldeak goiko postuetan aritzeko aukera guztiak ditu hurrengo denboraldian. Talde lanak ekarri ditu emaitzak eta lan giro ona.

Nesken taldean, ostera, ez dago aldaketarik. Aurreten egindako denboraldiak hurrengorako oinarriak argi uzten ditu. Aupa neska!

Eskerrik asko denoi!

Arabiourrutia eta Aspuru txapelkun trinketean

Klubun arteko Euskal Herriko txapelketa irabazi dute

> TRINKETA J.D.
Atxarte Pelotazale Elkarteko Asier Aspuru eta Aitor Arabiourrutiak Euskal Herriko klubun arteko txapelketa irabazi dute trinketean. Tornosolo trinketean jokatu-tako finalean

40-16 menderatu zituzten Dimako Ziarrusta eta Etxebarria. Abadiñarrek espero baino errazago irabazi zuten.

Aspuru federazioen arteko GRAVNI txapelketa ere irabazi du aurreten.



Aspuru eta Arabiourrutia txapelagaz.

Amaia Lartitegi Euskadiko txapelkun kadeteetan

Sopelan Euskadiko eta Bizkaiko txapelkun geratu zen



Amaia Lartitegi Sopolako podiumean.

> TXIRRINDULARITZA J.D./M.Z.
Iurretako CAF Transport Engineering taldeko Amaia Lartitegi kadete mailako Euskadiko txapelketa irabazi zuen Sopolako lasterketan. Kadetetako lehen urteko ziklista da.

Elite mailan, berriz, Ziortza Isasik eta Olatz Agorriak podiumera igotzea lortu zuten. BioRacer taldeko txirrindulariak Bizkaiko Txapelketan bigarren eta hirugarren postuan sailkatu ziren, hurrenez hurren.

m o m o t x o
t a b e r n a

Plateruen plaza, 12 DURANGO
Tel.: 946 811 006

hitz artekalea, 14 durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#gomendioak

HELDUENTZAT

BIDAIA SENTIMENTALA FRANTZIA ETA ITALIAN ZEHAR
Laurence Sterne (2016)

UME ETA GAZTEENTZAT

TAPPER BIKIAK NEW YORK ASTINTZEN
Geoff Rodkey (2016)

MUSIKA

NOMADAK ETA KOFREA
Keu Agirretxea (2016)



BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
LAUDIO - ABADIÑO

shopping days
BAUTISTA



20 egunean prezio bereziak gure dendetako sail guztietan.
Ekainaren 10etik 30era bakarrik

%30era arteko deskontuak

Zure erosketan %100 finantzatzen dugu,
eta urrian ordaintzen hasiko zara:

10 kuota sarrerarik, interesik, komisorik eta gasturik gabe

www.bautistamuebles.com ☎ 94 672 77 00 info@bautistamuebles.com

Urbitate Industriagunea, 4 - 2. pabiloia ABADIÑO (Eroski merkataritza-gunearen ondoan)

Zornotza herri arteko finalera sailkatzeko mirariaren bila, etzi

Kanporaketa aldapa gora dute, eta nagusietan atzelari titularra falta zaio



Lagun Onak pilota elkartearen osatzen duten pilotariak.

> PILOTA J.D.

Zornotzak eta Markinak Bizkaiko herri arteko txapelketako itzuliko jardunaldia jokatu dute domekan, 16:30ean, Zornotzako pilotalekuan. Finalerdia da eta handik irtengo da lehen finalista. Zornotzak aldapa gora du kanporaketa, joaneokan 2-1 galdu zuelako eta Markinak talde indartsua duelako. "Miraria behar dugu", onartu du Lagun Onak pilota elkartearen Iñaki Olabarriak. Joaneokan kadete

(22-13) eta gazteek (22-7) galdu eta nagusiek irabazi egin zuten (10-22). Kanporaketako gakoe-tako bat gazteetako partiduan egon zela uste du Olabarriak: "Ez genuen gure mailan jokatu. Partidu txarra izan zen. Eurak, aldiz, oso ondo aritu ziren". Domekan, gutxienez, partidu bi irabazi behar dituzte eta, gainera, aldeko-kontrako tanto balantze negatiboari buelta eman. Hori gutxi balitz, nagusietan Txaber Zabalaren ordez Beñat

Iturbe arituko da Iñigo Elorriagaren bizkarzain. Gazteetako bikotea Estifan Lizundiak eta Mikel Goiriak osatuko dute, eta kadeteetako Iñigo Atutxak eta Gorka Lazkanok. Aurtengoa herri artekoaren 46. aldia da, eta Zornotzak ez du inoiz irabazi. 2001ean finalera heldu zen, eta Elorrioren kontra galdu zuen. Txapelketako bigarren finalista Munitibibar izango da seguruenik. Joaneokan hiru partidua irabazi zizkion Lemoari.

Elorrion eta Durangon errugbia protagonista

Elorrion 35. urteurreneko jaia ospatuko dute

> ERRUGBIA J.D.

Elorrion errugbi taldea sortu zeneko 35. urteurrena ospatzeko jaia antolatu dute zapatuan. Egun berean, Errugbi Eguna egingo dute Durangon.

Elorrion umeentzako ekimenagaz hasiko dute ospakizun eguna. 10:00etatik 12:00etara, errugbi tag modalitateetan partidutxoak jokatu dituzte errugbi zelaian, eta 14:00etan gaztetxo denek plazan bazkalduko dute. 15:00etan nagusien-

tzako *rugby tag* txapelketa hasiko da. 19:00etako poteoaren ostean, 21:30ean afaritara batu-ko dira. Txartelak Parran erosi daitezke ekainaren 18ra arte.

Durangon, 11:00etatik aurrera, lagunarteko partidua antolatu ditu DRTk, eta ondoren bazkaritara batu-ko dira. Bestalde, oraintsu antolatu duten *rugby tag* topaketan 1.534 gaztetxo parte hartu dute, eta Nissan Gaurak kopuru hori eurotan eman dio Rio de Oro elkarteari.



Durangoko Errugbi Topaketan 1.534 euro batu dituzte Rio de Orentzat.

VII. Peter Memoriala jokatu dute zapatuan

Horren aurretik, XXVI. umeen eskolarteko txapelketa jokatu dute Ezkurdiko pilotalekuan



Bost partidu jokatu dituzte zapatuan.

> PILOTA Jone Guenetxea

Ezkurdi pilotalekuak umeen eta nagusien mailako finalak hartuko ditu zapatuan. 16:30etik aurrera, bost partidu jokatu dituzte. Hiru, umeen mailakoak, buruz buru izango dira. Beste biak, nagusienak, bikotea. Umeen mailan Liher Nogueiras eta Jon Gerrikabeitia arituko dira aurrez aurre. B mailan, berriz, Danel Belategi eta Gorka Sagarna lehiatuko dira. A mailan Ekain Etxebarriak eta Sergio Areitiok jokatu dute.

Jarraian, Peter memoria-laren finalak jokatu dituzte. Nagusien 2. mailan Gardoki eta Arrasate durangarrek Atutxa eta Freitas usansoloarren aurka jokatu dute. Lehenengo mailan, berriz, Agirrezabal eta Lopez durangarrak Legorburu (Galdakao) eta Bilbaoren (Lezama) aurka arituko dira.

'Txaraka'ren oroimenez mendi lasterketa domekan

Abadiñotik Urkiolara, 7,6 kilometro ditu ibilbideak

> MENDI LASTERKETA J.D.

Serafin Amezua 'Txaraka'-ren oroimenezko mendi lasterketa lehiatuko dute domeka honetan Abadiñoko Sekulebedarra Kirol Klubak antolatuta.

10:30ean Abadiñon hasi eta Urkiola gainean amaituko da. Guztira, 7,6 kilometroko ibilbideari aurre egingo diote parte-hartzaileek, 600 metroko desnibela duena. Izen-ematea egunean bertan egin daiteke, antolatzaileek jakinarazi dutez. Proba hasi baino 15 minutu lehenagora arte San Trokaz elizaren parean jarriko duten

postuan eman ahalko da izena. Izen-ematea 10 euro izango da.

Gizonezko eta emakumezkoen aurreneko hirurentzat sariak egongo dira. Irabazleek 80na euro jasoko dituzte, bigarrenek 40na euro eta hirugarrenek 20na euro. Abadiñar onenari garaikurra emango diote.

Izen-ematea proba hasi baino 15 minutu lehenagora arte egin daiteke San Trokaz elizaren ondoan



CEPA DURANGO HHI (Helduen Hezkuntza)
Doako irakaskuntza ofiziala

MATRIKULA





IRAKASKUNTZA ARAUTUA

- I. GRADUA
- II. GRADUA
- III. GRADUA (DBHko graduatua)

IRAKASKUNTZA EZ-ARAUTUA

- Gaztelania atzerritarrentzat.
- Goi mailako zikloetarako sarbide probak.
- Informatika ikastaroak.
- Ingelesa (hasiera-maila).

MATRIKULA ZAITEZ
946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net

Matrikula egiteko ordutegia:
Astelenehenetik ostegunera: 09:00-13:00/16:00-19:00. Ostiraletan: 09:00-13:00

MATRIKULA-EPEA: ekainaren 15etik 30era eta irailaren 2tik 16ra



JATETXE GIDA

ÑAM!**PLATERUENA Kafe Antzokia**

Landako etorbidea, 4 DURANGO

Tel.: 946 030 300

Egunero zabalik. Menu bereziak, egunekoak, taldeentzakoak eta ospakizunak.

www.plateruena.eus**ÑAM!****OLAJAUREGI JATETXEA**

Kurutzia Kalea, 52 DURANGO

Tel.: 946 200 864

Eguneko menuak, bereziak, taldeentzakoak eta ospakizunak. Egunero zabalik.

www.olajauregi-jatetxea.com**ÑAM!****MENU BEREZIA**

Sarrerakoak (bi aukeran)

Entsalada

Patata frijituak

Zatitutako txuleta errea

Postrea

Ogia eta edaria

60€
bikoteko
(BEZa barne)**JULIANTXU**

Iturriza, 2 BERRIZ

Tel.: 946 824 077

Karta. Txuleta errea.

75 lagunentzako jangela.

ÑAM!**LA GIPUZKOANA JATETXEA**

Bixente Kapanaga, 2 - IURRETA

Tel.: 946 811 005

Aste bitarteko menua. Afariak ostiral eta larunbatean. Bereztasuna, "arrantza apurtuak". Menu bereziak enkarguz.

ÑAM!**KANBIO JATETXEA**

San Migel Dudea auzoa

AMOREBIETA-ETXANO

Tel.: 946 730 033

Aste bitarteko menua, asteburuko menua, menu berezia eta karta.

**Profesional onenak zure zerbitzura!**

Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1.º ezk. • 48200 DURANGO
Tel.: 946 813 562

ETXEBITZAK ALOKAIUAN

DURANGO. Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 550€-tik hasita.

ETXEBITZAK SALGAI

DURANGO. Tabirakalea. 3 logelako etxea, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira. Eta garajea itxia.

DURANGO. Errotaritxuen Atiko zoragarria 3 logela, bi komun, bi terraza zabal, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, eta garaje itxia lau kotxe sartzeko. Ikusgarria.

DURANGO. Francisco Ibarra. 4 logelako etxebizitza, 2 komun, sukaldea, egongela balkoiarekin eta despentsa.

ATXONDO. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, hiru balkoi. Horrez gain, garaje itxia.

ELORRIO. 4 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea balkoiarekin, komuna, eta garajea itxia.

DURANGO. -Kalebarria, 3 logelako etxebizitza, sukaldea, egongela, eta komuna. 120.000€.

DURANGO. ARTEKALE. Azken etxebizitza, bikoak, trastelekuarekin. Prezioak 165.000€-tik hasita.

LEKEITIO. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

ABADIÑO. Aita Letona. Etxebizitza ederra 2 logelarekin, komuna, sukaldea, egongela, garajea eta trastelekua.

ABADIÑO. Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, komuna, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

DURANGO. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

ATXONDO. Etxebizitza 2 logelarekin, komuna, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

ZALDIBAR. Etxebizitza, 3 logela, komuna, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.

LURSAILAK SALGAI

ABADIÑO. 1.000 m2-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitze baimenarekin. Zonalde egokia.

BERRIZ. 10.000 m2-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

ABADIÑO. Bifamiliarra eraikitze lursaila, 1.000 m2. Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA. EUBA. Txalet bifamiliar bat eraikitze lursaila, 3.000 m2 inguruko azalerarekin.

AMOREBIETA. LARREA. 27.000 m2-ko lursail ederra, dena partzela bekarrean.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ABADIÑO. GAZTELUA. Baseri ikusgarria, arku eder batekin sarreran, ekialdera begira, 20.000 m2-ko lursaila baserriaren ondoan.

BERRIZ. Txaleta 1.200 m2-ko partzela, Abeletxe kalean. Hegoaldera begira. 4 logela, 3 komun, sukaldea, egongela, eta garajea.

ATXONDO. Baseri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m2-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

BERRIZ. Bº Murgoitio. Bifamiliar ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 komun, garaje bikoitza, 12.000 m2-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

MENDATA. Lamikiz auzunea. Baseri bifamiliarra berrizatzeko. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO. Eraikin atxiki ederra, izkina, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatze.

BERRIZ. Baseri ederra, Murgoitioko zonaldean. Egokia landa-turismorako, landetxea. Ikuspegi ezin hobek.

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

ETXEBITZAK SALGAI

SASIKOA: 90 m2



• 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, 2 komun, garajea eta ganbara. **275.000€.** €

ASKATASUN ETORBIDEA: 83 m2



• etxebizitza salgai. Guztia jarrita. 3 logelarekin, egongela, sukaldea jarrita esekitoki eta guzti, despentsa, 2 komun (bainugela eta dutxa), 2 balkoi, 9 m2-ko ganbara eta garajea. Bigarren garajea toki bat izateko aukera. **259.000€.**

ASKATASUN ETORBIDEA: 64 m2



• 2 logela, egongela, sukaldea jarrita, komuna eta balkoia. Elektrizitate eta iturgintza instalazio berriak. Hari musikala etxe guztian. Teilatu berria, fatxada eta igogailua. **210.000€.** €

BARRENKALEA



• ALOKAIUA, EROSTEO AUKERA. Etxebizitza dotorea 67 m2, 2 logela, egongela, sukalde amerikarra, komun 1, 2 balkoi, trastelekua. **199.000€.** 700€ hilabete.

FRAY JUAN DE ZUMARRAGA



• 118m2 gehi terraza. Ataria. Sukalde-jangela, 4 logela, egongela, 2 komun, terraza handia. **195.000€.** €

ANTSO ESTEGIZ



• 78 m2. Etxebizitza 4 logelarekin, egongela, sukaldea jarrita, komuna. Gas naturalarekin berogailua. Bizitzera sartzeko. **134.000€.**

www.inmoduranguesado.com

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBITZAK SALGAI

TABIRA



• 75 m2. 2 logela. Komuna. Sukaldea eta Egongela. **125.000€.**

DURANGO (AUKERA)



• 3 logela. Komuna. Egongela. Eguzkitsua. **85.000€.**

KOMENTUKALE



• 4 logela. Berogailua. BIZITZERA SARTZEKO MODUAN. **125.000€.**

IURRETA



• Etxebizitza 3 logelarekin. Komuna. Sukaldea eta egongela. Trastelekua. Igogailua. Berogailua. DENA BERRIA. **155.000€.**

TABIRA



• 3 logela. 2 komun. Egongela terrazarekin. Sukaldea eta esekitokia. Ganbara. Garajea. Eguzkitsua. **285.000€.**

MATIENA



• 4 Logela. Komuna. Sukaldea. Despentsa. Egongela terrazarekin. Garajea aukeran. **155.000€** negoziagarria.

LOKALAK ETA ETXEBITZAK ALOKAIUAN. KONTSULTATU.
www.inmoetxetxo.com

**ALOKAIUAN
ETA SALGAI DITUZUN
HIGIEZINEN BERRI
EMAN NAHI
AL DUZU?**



**Anbotok tarte hau
eskaintzen dizu**

Informazio gehiagorako:
Tel.: 946 217 902
publi@anboto.org

anboto.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK	5 IBILGAILUAK
2 TEKNOLOGIA	6 HARREMANAK
3 LANA/NEGOZIOAK	7 AISIA/KIROLA
4 DEHETARIK	8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzat - Erregistratu www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: anboto@anboto.org.

Paperean, ordainduta: Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonon.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Garai. Baserrira salgai. Oarbeaskoa, San Migel auzoa, 6. Garai. XVI. mendekoa. Tolare azpiegitura, igartubeiti baserriaren tankera eta sasoikoa. Ondarea legez, Bizkaiko Foru Aldundiaren errehabilitaziorako diru-laguntza du. 10.000 m²-ko lursaila. 8.500 m²-ko belardi soroa, nahiko laua. 200 m²-ko baratzea, fruta-arbolak. Nekazal turismoa edo nekazaritza ekologikorako aproposa. Toki lasaia, hegoaldera begira. Errehabilitazioa behar du. Bifamiliarra egiteko baimena. Tel.: 639-83 34 89. Posta: jo.amantegi@gmail.com.

Mallabia. Aukerakoa, nekazaritza-eremurako, toki eguzkitsua eta ederrean, 20.000 m²-ko lursaila. Prezio egokia, ikusi nahi baduzu, deitu. Tel.: 655-70 26 47 (19:00-21:00). Nahi izanez gero, aukera dago lursail gehiago eskuratzeko.

ERRENTAN EMAN

Durango. Barrenkalen logela bateko apartamentua alokatzen da. Guztiz berritua eta oso argitsua. Deitu. Tel.: 615-73 60 36.

Etxebarrri. Etxebarrin etxea terrazarekin alokagai. Sukaldea, egongela, bainu bat eta logela. Hornituta. 550 euro. Tel.: 647-36 98 76.

Iurreta. Iurretan pisua alokatzen da, 2 logela, igogailua. Zubiurre kalea. 530 euro. Tel.: 695-71 00 69.

Zaldibar. Igogailua, bi kaletara leihoak, garajeetan lokal itxi bat. Bikote batentzako aproposa. Interesatuta bazaude deitu. Tel.: 664-10 27 91.

OPORRETAKO ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMAN

Vieux Boucau (Landak). Apartamentu bat alokatzen da Landetan, Vieux Boucau herrian. Boucanier erresidentzian dago. Uztailean eta abuztuan alokatzeko. Tel.: 675-71 93 63 (Durangaldea).

Benidorm (Alacant). Sei pertsonentzako apartamentu bat alokatzen da Benidormen uztailean eta abuztuan. Alde Zaharrean. Hondartzatik oso gertu. Tel.: 649-00 89 49.

PISUA KONPARTITU

PISUKIDE BILA

Donostia. Uztailean 1 etik aurrera pisukide bila gabiltza. Etxea oso ondo dago (sukalde ona, 3 logela, 2 komun), giro lasaia eta euskalduna. Giro lasai honekin bat egingo lukeen pertsona baten bila gabiltza. Tel.: 693-80 67 96.

Durango. 31 eta 35 urteko neska euskaldun bi hirugarren pisukide jator baten bila gabiltza, Durangon merkatu plazaren ondoan dagoen 3 logelako etxe batean, uztailetik aurrera (uda ondoren ere izan daiteke, uztailetik aurrera nahiago dugun arren). Tel.: 667-92 38 91 / Posta: mugurdiurdin@hotmail.com

GARAJE / TRASTEROAK

SALDU

Durango. Durangoko Montebideo kalean, jesuitetako

2. solairuan garaje bikoitza salgai, irekia baina ixteko aukerarekin. 27,87 m². 32.000 euro (negoziagarriak). Tel.: 695-71 00 27.

Lana - negozioak

LAN ESKARIAK

ETXETIK LANAK

Elorrio. Emakume arduratsua etxetik lanak egiteko eskaintzen du bere burua. Esperientzia handia. Erreferentziaduna. Tel.: 688-92 75 58. Posta: juliachans67@gmail.com.

PERTSONAK ZAINDU

Durango. Emakume arduratsua prest dago pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Barruko edo kanpoko langilea. Orduka ere lan egiten dut. Sukalde laguntzailea ere bai. Tel.: 651-94 14 57.

Elorrio. Gizon euskalduna, klinikako tekniko laguntzailea eta etxetik lanak egiteko (egun osoan) edota lagun egiteko (etxean zein zahar egoitzan), erosketak egiteko eta abar. Prezioa: paseatzera 4,85 euro/2 ordu. Aste osoa: 40 euro. Mugitzen laguntzeko: 10 ordu egunero. Aste osoa: 65 euro. Elorrio. Durangaldea. Tel.: 690-28 60 71. Posta: elorrirak@yahoo.es.

Durangaldea. Lan bila nabil. Umeak zaintzen, nagusiak, garbitasunean... Tel.: 632-70 81 59.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Garbiketan ere jarduten dut. Orduka edo kanpoko langile moduan. Esperientziaduna.

Erreferentziakin. Tel.: 632-16 37 82.

Durangaldea. Gizona lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzeko. Orduka, barruko edo kanpoko langilea. Tel.: 612-48 14 70.

Durangaldea. 24 urteko gizona pertsona nagusiak zaintzeko prest. Barneko edo kanpoko. Tel.: 612-48 14 70.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzen ditut barneko langile moduan. Tel.: 602-16 92 35.

Durangaldea. Garbiketan, nagusiak zaintzen zein umeak zaintzen. Tel.: 665-51 65 39. (Ana)

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Tel.: 632-08 60 75.

Durangaldea. Lan bila nabil garbiketan, nagusiak zaintzen zein umeak zaintzen. Tel.: 632-70 81 59.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Barruko edo kanpoko langile moduan. Tel.: 632-51 61 91.

IRAKASKUNTZA

Durango. Irakurketa, idazketa, ulermena, ikas teknikak (lan ohiturak, motibazioa, planifikazioa...). Banaka edo taldeka. LH, DBH, batxilergoa. Esperientzia. Tel.: 656-79 15 99.

GAINERAKOAK

Durangaldea. 19 urteko mutila edozein lan duinetarako prest. Tel.: 699 25 29 62.

Durangaldea. Gizona lan bila dabil igeltsero, adreilu jartzaile,

pladur jartzaile edo zeramikari moduan. Tel.: 631-06 72 62.

Durangaldea. Lorezaintzan, obran edo baserrian lan bila nabil. Aste bitartean edo asteburuetan. Orduzabala. Tel.: 602-16 48 06.

LAN ESKAINTZAK

OSTALARITZA

Berriz. Berrizen asteburuetan lan egiteko sukaldaria behar da. Tel.: 946-82 40 27

Durango. Plateruena Kafe Antzokiak jantzeria zerbitzaria behar du. Baloratuko da esperientzia, euskara maila eta talde lan gaitasuna. Interesatuak bidali curriculumazuzendaritza@plateruena.net helbidera ekainaren 15a baino lehen.

PERTSONAK ZAINDU

Durango. Neska euskalduna behar dugu arratsaldetan astean bi egunez umeak zaintzeko Durangon. Tel.: 635-75 08 04.

GAINERAKOAK

Elorrio. Ile-apaintzaile lanpostua daukagu Nukleo ile-apaindegian. Kontaktua: 946-58 29 96.

Denetarik

SALDU / EROSI


Txakurkumeak. Ardi txakur alemaniar arrazako txakurkumeak salgai. Tel.: 635-70 52 18.

Txerrikumeak salgai. Txerrikumeak salgai. Tel.: 692-36 69 55.


anboto.org
MUGIKORREAN




Albisteak, agenda



Telefono gida



Parte hartu



Herriko informazioa jaso

Albisteak eta agenda, bizkor eta eskura.

Telefono gida osatuena: zuzenean deitzeko aukera.

Parte hartu, galderak eginez, erantzunak lortuz.

Pertsonalizatu, zure herria aukeratzuz.

DESKARGATU DOAN !

AGENDA

ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Ekainaren 24an, 20:00etan,
Berrizko San Juan ermitan

Jabier Muguruza

'Tonetti anaiak' azken diskoko kantak zuzenean eskainiko ditu Jabier Muguruza musikari irundarrak, Berrizen. Murgoitio auzoko San Juan ermitan eskainiko du kontzertu hori, ekainaren 24an. Muguruzaren hamalagarren diskoa da 'Tonetti anaiak, eta jazz ukituko kantak biltzen ditu.

Musika

:: BERRIZ

EKAINAREN 24an

20:00etan, Jabier Muguruza, 'Tonetti anaiak' diskoa aurkezten, San Juan ermitan.

22:00etan, Appraise, Worth It, eta Maradona, Hiltegiex Gaztetxean.

:: DURANGO

EKAINAREN 17an

22:30etan, 'Emadazue freskura', Xabier Amurizari esker ona emateko kantaldia, Plateruenean.

EKAINAREN 19an

12:00-18:30, Piknik musikala, Broken Brothers Brass Band, Bertzi Marching Band, Bart Sax taldea, eta Savoy Swing Up Elkarteagaz, Tabiran.

EKAINAREN 21ean

19:00etan, Soinua musika eskolako ikasturte amaierako emanaldia, Plateruenean.

:: ZORNOTZA

EKAINAREN 17an

18:00etan, Zubiaur musika eskolako 4 eta 7 urte arteko umeen emanaldia, Zelaieta frontoian. Analisisiko ikasleen emanaldia, Zelaietako auditorioan.

EKAINAREN 18an

17:00etan, Zubiaur musika eskolako pop-rock jaialdia, Zelaieta parkean.

EKAINAREN 21ean

19:30etan, Zornotzako abesbatzen emanaldia, Musikaren Europako eguna dela eta.

EKAINAREN 24an

19:00etan, Haizetara Fanfarren, banden eta kale musikariaren nazioarteko jaialdiaren aurkezpena, Zelaieta parkean.

20:00etatik 01:00etara, Haizetara jaialdiaren barruko emanaldiak herriko kale eta plazetan zehar.

Antzerkia

:: IURRETA

EKAINAREN 17an

17:00etan, 'Ferieta Pirata' jolasak eta animazioa, kaskoan.

19:00etan, Toni La Sal Damagia taldearen 'La familia Toronbole' Askondon.

21:30etan, Deabru Beltzak taldearen 'Su a Feu', kaskoan.

EKAINAREN 18an

13:00etan, Dikotomia taldearen 'Spazi...O', Amilburun.

17:00etan, Patxin eta Potxin pailazoen 'Herriko jaiak', Dantzari plazan.

20:00etan, Pez Limbo taldearen 'La Parisienne', Askondon.

EKAINAREN 19an

13:00etan, Madiber magoaren 'Hor doa magia', Dantzarin.



Omenaldia

:: ABADIÑO

EKAINAREN 18an ('Jon Peli gogoan' omenaldia)

12:00etan, txupinazoa, autoen erakustaldia eta umeentzako jolasak.

13:00etan, trikipoteoa.

14:00etan, brindisa.

15:00etan, bazkari herrikoia.

17:00etan, kamiseten zozketa, umeentzako jolasak, DJ Lineker eta herri kirolak.

20:00etan, Baske Street Boys, Tributo Eskorbuto, Habemus Papam, Los Amaia, eta Tributo Parabellum.

00:00etan, su artifizialak.



Jaiak

:: ABADIÑO (Urkiola)

EKAINAREN 19an

13:00etan, Soka-dantza, kantuak, dantza eta Taberna Ibiltaria, eliza inguruan.

Eguerdian, Bizkaiko gaiteroak eta AIKO.

16:00etan, AIKO Erromeria.

18:00etan, Bizkaiko gaiteroen emanaldia.

:: MALLABIA (Gerea auzoko San Adrianak)

EKAINAREN 18an

16:00etan, umeentzako txokolatada.

17:00etan, briska txapelketa.

EKAINAREN 19an

11:00etan, meza, eta ondoren, Gazta Alai dantza taldearen emanaldia, bertso saioa, herri kirolak, eta umeentzako jolasak.

18:00etan, asto probak.



Berbaldia

:: DURANGO

EKAINAREN 16an

18:15etan, Ana Martinen 'La sexualidad en la personas mayores' berbaldia, Adinekoen Zentroan.



Azoka

:: ABADIÑO

EKAINAREN 19an

10:00etatik 14:00etara, Gorabide elkarteak antolatutako bigarren eskuko azoka solidarioa, Ferialekuan. Bildutako dirua AMPROS elkarteari emango diote. AMPROS-ek Saharako errefuxiatuen kanpamentuetan adimen urritasuna dutenekin lan egiten du.



:: DURANGO | ZUGAZA

Expediente Warren. El caso Enfield

- barikua 17: 19:30/22:00
- zapatua 18: 17:00/19:30/22:30
- domeka 19: 16:30/19:00/21:30
- astelehena 20: 18:30/21:00
- martitzena 21: 20:00

Ninja Turtles. Fuera de sombras

- barikua 17: 19:30/22:00
- zapatua 18: 17:00/19:30/22:30
- domeka 19: 16:30/19:00/21:30
- astelehena 20: 18:30/21:00
- martitzena 21: 20:00

Grandes familias

- barikua 17: 19:30/22:00
- zapatua 18: 19:30/22:30
- domeka 19: 19:00/21:30
- martitzena 21: 20:00

El reino de los monos

- zapatua 18: 17:00
- domeka 19: 16:30

:: ZORNOTZA | ZORNOTZA ARETOA

Dos buenos tipos

- barikua 17: 20:15
- zapatua 18: 22:00
- domeka 19: 20:00
- astelehena 20: 20:15

El Bosco. El jardín de los sueños

- eguena 23: 20:15

Ekainaren 17an, 21:30etan, lurretan

Deabru Beltzak-en 'Su a feu'

Kalez Kale antzerki jaialdiaren hamargarren edizioaren barruko emanaldia eskainiko du Deabru Beltzak konpainiak, gaur gauean, lurretan. Kaleko dantzak, sua eta perkusioa dira lurretako kaskoan eskainiko duten ikuskizunaren osagai nagusiak. Hamarkada bi daramatza martxan Deabru Beltzak taldeak, eta urte askoko lanaren emaitza da 'Su a feu'. Alain Diez, Ruben Sastre, Kepa Elgoibar, Dario Campos, Alex Alonso, Zesar A. Ogara eta 'Garbitxu' taldekideak dira Deabru Beltzak-en ikuskizun honetan aktore eta musikari lanetan dabiltzanak.





Anbotoren Lagunak
Lekuan lekuko lagunak

Andaluziara edo Costa Doradara bidaiara irabazi ezazu Anbotoren Lagun eginez

Anboto Lagunen artean lau pertsonentzako (2 heldu + 2 ume) astebeterako bidaiara zotz egingo dugu uztailaren 15ean

EROSKI bidaiak
Andaluziara? Egau lagun!

www.anboto.org
Tel.: 946 816 558
lagunak@anboto.org

> BOTIKAK

BARIKUA, 17 09:00-09:00 Sagastizabal Askatasun etorb. 19 - Durango Guarrochena, Lide Bide Zahar 14 - Zornotza 09:00-22:00 Sarasketa, Diego Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza	DOMEKA, 19 09:00-09:00 Navarro Artekalea 6 - Durango Guarrochena, Lide Bide Zahar 14 - Zornotza 09:00-22:00 Sarasketa, Diego Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza
ZAPATUA, 18 09:00-09:00 Etxebarria Montevideo etorb. 2 - Durango Guarrochena, Lide Bide Zahar 14 - Zornotza 09:00-13:30 Navarro Artekalea 6 - Durango Sagastizabal Askatasun etorb. 19 - Durango Campillo Montevideo etorb. 24 - Durango Bazan Diaz Uribarri 5 - Durango Unamunzaga Muruetatorre 2C - Durango Balenciaga Ezkurdi plaza 8 - Durango De Diego Intxaurrondo 22. - Durango Eguren, Isabel Trañabarren 15 - Abadiño Bartolome Gabiola 2 - Berriz Larrañaga-Balentiaga Berrio-Otxoa 6 - Elorrio Goiria, Mari Carmen Sabino Arana 6 - Zornotza Melero, Rosa Mari San Pedro 31 - Zornotza 09:00-14:00 Irigoien Bixente Kapanaga 3 - Iurreta 09:00-22:00 Sarasketa, Diego Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza	ASTELEHENA, 20 09:00-09:00 Mugica Andra Maria 9 - Durango Goiria, Mari Carmen Sabino Arana 6 - Zornotza 09:00-22:00 Sarasketa, Diego Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza MARTITZENA, 21 09:00-09:00 Balenciaga Ezkurdi plaza 8 - Durango Goiria, Mari Carmen Sabino Arana 6 - Zornotza 09:00-22:00 Sarasketa, Diego Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza EGUAZTENA, 22 09:00-09:00 Campillo Montevideo etorb. 24 - Durango Goiria, Mari Carmen Sabino Arana 6 - Zornotza 09:00-22:00 Sarasketa, Diego Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza EGUENA, 23 09:00-09:00 De Diego Intxaurrondo 22. - Durango Goiria, Mari Carmen Sabino Arana 6 - Zornotza 09:00-22:00 Sarasketa, Diego Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza

> ZORION AGURRAK✉ zorionak@anboto.org
eguztaren 14:00ak arteko epea

> Txaber, bihar 7 urte beteko dozuz. Zorixonak etxeko danon partez eta mosu handi bat, polittori!



> Zorionak Jon etxeko guztion partez, mosu eta besarkada erraldoi bat zure 30. urtebetetzean.



> Zorixonak, Lizar! Jada 3 urte haundi bete dozuz, laztana. Ederra da zu hazten ikustie. Gurdikada bat mosu etxekoen partez.



> Zorionak zure 7. urtebetetzien, Bitor! Musu handi potolo bat etxeko danon partez!



> Etxeko margolariak 7 urte bete zituen pasa den eguztenean, Zorionak, Irati! Zazpi musu potolo etxekoen partez!



> Intza Iturriaga etxekoen partez, 8 urte beteko ditu domekan. Zorionak laztana familia guztiaren partez.



> Durangoko kakorratzeko kideok Nafarroako kakorratzgieen topaketan parte hartu genuen. 400 lagun batu ginen ekitaldian.



Ermodo, 11 - DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozaturango@gmail.com

f Gozatu Gozategia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean tarta batzotz egingo dugu. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturakodatuak zorion agurrekin batera.



Anbotoren Lagunak
Lekuan lekuko lagunak

Anbotoren Lagun eginez, irabazi ezazu asteburuko egonaldia DEBAko eta ORIOko Aisia Hoteles-en

Anboto Lagunen artean Aisia Hoteles-en bi egonaldi zotz egingo dugu uztailaren 15ean, bakoitza bi pertsonentzako eta Talasoterapia zirkuituz

www.anboto.org
Tel.: 946 816 558
lagunak@anboto.org

aisia
Hoteles

“Esprinta uste genuena maratoia da; gero zer gertatuko den ez dakigu”

Intxaurre elkarteak 30. urteurrena ospatuko du asteburuan; 2000. urtean eman zuten enbargatzeko epaia



> AKUILUA Aitziber Basauri
Ateak ixtera noiz etorriko diren ez dakitela ospatuko du 30. urteurrena Intxaurrek, eta urteotan zabalik mantendu duten guztiei eskerrak eman gura dizkie: izan zirenei eta direnei, hemen daudenei eta kanpoan daudenei, bezeroei...

Dena prest urteurren jairako? Maialen Bildosola: Ia-ia. Guztientzako egitarau xumea presatatu gura izan dugu.

Ibon Azueta: Denbora askorik ere ez dugu izan. Bizitako egoerak ere horretara eraman gaitu. Ez dakigu noiz etorriko diren-eta Intxaurre ixtera.

Azken urteurrena izan daiteke hau. Nola bizi duzue egoera? I.A.: Bizi dugu. Epaia eman zutela 16 urte dira, baina, oraindik ez da gauzatu. 2000. urtetik gaude itxiko duten zain. Ohitu ere egin gara, zelanbait. Egune-ro-egunero zabaltzen du Intxaurrek atea. Ez gara konturatzen, baina, hori asko da, eta jende piloari esker da posible. Bestela, itxita legoke duela 16 urte. Ixtea erraza da, zabaltzea da zaila.

M.B.: Blokeo egoera batean ere sartzen zara. Edozer gauza egiteko ere mugatuta gaude.

Intxaurre itxita, zer galduko du Durangok?

I.A.: Askorentzat erreferente bat dena. Baina, askotan, gertatu arte ez gara galdutakoaz jabetzen. Ez dugu sinisten. Esprinta uste genuena maratoia da. Gero zer gertatuko den ez dakigu.

M.B.: Egoerari nola aurre egin izan da gure ardura; ez genuen bigarren aukera posiblerik gogoan. Ez genuen sinestu gura gertatzen ari zena.

Intxaurren 25 urtetik gora egin dituzu, Ibon. Kontatzeko moduko pasarterik?

I.A.: Askok! Bat kontatzekotan: eguneko irabaziak banketxera eraman gabe tabernan gordeta uztea erabaki zuen batek. Bihamunean, txokora bazkaltzera etorri zirenek, dena prestatzen ari zirela, usain arraroa sumatu zuten... erre usaina zetorren labatik! Erretzen hasita zegoen han gordetako dirua. Diru askotxo zen, baina, ez zen ezer galdu!

Parrandarako ohiturak aldatu dira urte hauetan guztietan?

I.A.: Ohiturak aldarazi dituzten faktoreak eman dira. Ez dago dirurik! Aukera emanda, buelta emango luke egoerak. Adin batetik gorakoak badabiltza, ordu jakinetan. Nik bai, baina, 16 urteko gazteek ez dute Goien-

kale urte goreneetan ezagutu. Batera eta bestera mugitzen dira orain ere, baina, garestia dela diote: jakina! Nik neuk ere ez dut 'Kubalibretara' poteatzen.

M.B.: Urte goren haien azkenak ezagutu nituen nik. Gazteagoak ez ditut Goienkalen ikusten.

Txosnaguneko eskarien arduraz duzue jaietan. Nahikoa lan...

I.B.: Ez! Lan bakoitzak berea du. Kokapena dela-eta sortutako tirabirak eta udalagaz hartuemanak dira gogorrak.

M.B.: Elkarte bakoitzak bere ardura du. Udalagaz harremanak izaten dira tirabiratsuek.

Beharrezkoa da txosnagunea?

M.B.: Bai. Badaude txosnetara baino ez datozenak. Adin guztietarako egun osoko egitaraua eskaintzen du.

I.A.: Beste eredu bat da, inori kalte egiten ez diona. Zentzugabea da sortzen den zurrunbiloa. Eztabaida artifizia da. Txosnak kentzeko nahi bat dago, eta ez bakarrik Durangon.

Biok egin duzue lan sukaldean eta tabernan. Zer nahiago?

I.A.: Sukaldea! Gustatzen zait. Gainera, haserretzekotan zartaginagaz haserretuko naiz, eta ez bezeroagaz. 20 urtetik gora egin ditut tabernan, eta psikologo izateaz kokoteraino bukatu dut. Oso ondo nago zartagin eta lapikoekin bakarrik.

M.B.: Taberna! Psikologo izatea gustatzen zait (barrez). Neko-soa da, baina jendeagaz hartueman gustatzen zait. Sukaldean bakarrik zaude. Zoratzekoa da.

LAUHORTZA

JUANITO GALLASTEGI

Abadea



Hauteskundeetan nor aukeratu?

Hauteskundeen zurrunbiloan gagoz buru-belarri sartuta azken egun honeetan.

“Neuk dodaz eta geuk doguz egitarau onenak, egitasmo liluragarrienak, agintzari zoragarrienak, bai banakakoek bai taldeek dabezan beharizan eta premina guztientzako urtenbide bidezkoenak. Beraz, geu aukeratu behar gozuez... Beste guztien egitasmok, agintzarik eta abarrek ez dabe piperririk balio”.

Hori baieztatzeko, hor dihardue batzuek eta besteek egunero, han eta hemen, kaleetako hormetan, telebistetan, irratietan, komunikabide guztietan, oharrrak, mezuak, deiak... jartzen eta bakarriketak, alkarrizketak, eztabaidak... izaten.

Azken honeetariko entzute-tsuenan izan genduan astelehenean, Estaduko lau alderdi handien buruzagien artean.

Besteen guztia guztizat edo baliobakotzat jo eta gero, norberena zan onena eta arazo eta beharizan guztiak konponduko ebazana. Euretariako bakotxari entzunda, berari botoa emon ezker, inor ez da egongo laster lan barik, gizartea eta erakundeak akats bakoak eta zuzenak izango dira, inoiz inon izan dan demokraziarik bikainena izango dogu, etorkinen arazo larria be ez da arazo izango, ez da ezer ondo bideratuko ez danik.

Erraza da gero eskeintzak eta agintzariak egitea!

Nik behintzat honako honi emongo neuskio botoa: bete leikena eta beteko dauana bakarrik eskeintzen dauanari, agintzen dauana betetzeko gaitasuna eta baliabideak dituanari, zuhurra danari, barbarik jaten ez dauanari eta batez be jatorra danari.

A! Eta gure Herria bere izate osoz aintzat hartzen dauanari.

Smurfit Kappa
Central Forestal

48 urte
EUSKADIKO PINUDIAK ZAINTZEN

Smurfit Kappa
Nervión